



42 UXUE ALBERDIREN

'KONTRAKO EZTARRITIK' LIBURUA


Bertso munduko erresistentziak berdintasunari

#2.654 | 2019/07/28 | 3,90 €




**Glovo enpresaren
alternatibak**

21 | EKONOMIA



**Euskal hedabideak
berriz ere liluratuz**


26 | CC LIZENTZIAK



LARRUN #244

**Prekarioetan
prekarioenak
ahotsa goratzen**

ZENBAT GARA?



ARGIA komunitatea zenbat kidek osatzen dugun jakin nahi dugu.
Erantzun galdera honi mesedez:

Harpidetzaren atzean
zenbat lagun zaudete?



ERANTZUNAK

zenbatgara@argia.eus · 943 37 15 45

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | GAIKIZI ERRANKA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU
- 08 | EKONOMIAREN TALAIA

AZALEKO ARGAZKIA:
DANI BLANCO

Iritziak

- 17 | IRATI LABAIEN EGIGUREN
- 18 | JUNE FERNÁNDEZ
- 19 | AHOZTAR ZELAIETA
- 19 | ITXARO BORDA
- 20 | ZIGOR ETXEBURUA URBIZU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 37 | DENBORAREN MAKINA
- 38 | BIZI BARATZEA
- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 50 | ZUZENETAKO EMANALDIA
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
ROBERTO URRUTIA
- 54 | BERANDUEGI



PACO FREIRE

21 | GLOVOREN ALTERNATIBAK

Lau erreportaje seriar
amaiera eman dio Paul Iano
kazetari gasteiztarrek. Enpresa
berri honek nola funtzionatzen
duen azaltzeaz gain, aurre nola
egin aztertu du. Mahai gainean
daude bestelako aukerak.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL
**Viktor Gorxkov: biziarentzako
CO₂-a baino larriagoa oihanean
suntsitzea dela erakutsi duena**
Pello Zubiria Kamino

12 | ANARTZ GORROTXATEGI
**"Herri txikietan ere, gauza batzuk
handiak egiten dira"**
Miel A. Elustondo

26 | CREATIVE COMMONS LIZENTZIAK
**Euskal hedabideak
berriaz liluratuz**
Xabier Letona

32 | ARRATE ILLARRO
**"Ahobizi eta Belarriprest,
biak dira rol aktiboak,
eta bietan eman behar
dira urratsak"**

Onintza Irureta Azkune

▶ 42 | UXUE ALBERDI
**"Ez da liburu eroso
biolentzia ahoskatzen duelako,
baina maitasunetik
egindakoa da"**
Estitxu Eizaguirre Kerejeta

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaitza Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez,
Eneritz Arzallus, Estitxu Eizaguirre,
Gorka Bereziartua,
Iñaut Gonzalez de Matauko,
Jon Torner, Lander Arbelaiz,
Mikel Asurmendi, Mikel Garcia,
Onintza Irureta, Pello Zubiria,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Z. Oleaga
Diseinua
Maitane Gartzandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte
Salmenta
Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua,
Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Sorraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde
Informatika
Iametzta interaktiboa, S.L.
Lege gordailua
SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea
Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefona
943371545

Ametzagaitza taldeko kidea da
Argia honako enprekin batera:

an(t)za
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu,
zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure
egileta aitortu eta baldintza beretan
eginez gero. Are gehiago, gure edukiak
ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren
edukientzat da baliagarria,
baliteke beste testu eta argazki
batzuk lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNDUA)



Hileta zibilean, herritarrez inguratua

Mariano Ferrer Donostiako Gladys Enea parkeko Mandas Dukearen jauregian agurtu zuten herritarrek uztailaren 16an. Ekitaldi xume eta laburra izan zen, familiak hala eskatuta. "Laudoriorik ez", aipatu zuen haren lagun Sabino Ormazabalek oholztan. Baina, ezinbestean, Ferrerrek jasotako loreak lau haizetara barreiatu dira, hark bizitzan jaurtitako arantzak hamaika zokotan iltzatu diren bezala. Egungo abiada zoroan samurra ez den arren, kazetaritza libre, pausatua eta zorrotza egitea, horra kazetari handiari egin dakioken omendaldirik beroena.





**KOPENHAGEN EZ DITUGU BISI-
TATUKO SIRENATXOA, TIVOLI
PARKEA, AMALIENBORGEKO JAU-
REGIA ETA HORRELAOKOAK
(...) SAIATUKO GARA IKUSLE PASI-
BO EZ BIHURTZEN, AUTENTIKOAK
IZANGO BALIRA BEZALA ENPAKE-
TATU ETA ESTERILIZATUTAKO ES-
PERIENTZIAK EZ KONTSUMITZEN.
(...) GAUR OSTIRALA DA. BI ASTEZ
EGONGO GARA KOPENHAGEN.
BESTELAKO TURISMOA EGITEA
LORTUKO DUGUN, BUELTAKOAN
ESANGO.**

Imanol Epelde
(27 zapata bloga)



**PAZIENTZIA IZAN BEHAR DA.
LEHENAGO EDO GEROAGO
PSOEK ULERTUKO DU ZER
IZAN ZEN HAUTETSONTZIEK
ESAN ZUTENA ETA AMORE
EMANGO DU; GOBERNUKO
ESERLEKU GUZTIAK NAHI DITU,
BOTERE GUZTIA BERETZAT,
BAINA AZKENEAN KOALIZIO
GOBERNUA IZANGO DA.**

Pablo Iglesias (Podemos)



**EZ DUT GAIZKIAREN
BANALITATEAREN AZALPENEAN
SAKONDUKO, HORI PRIMERAN
EGIN ZUEN HANNAH
ARENDT FILOSOFOAK, BAINA
BORTXATZAILEAK MONSTRUO
BIHURTZEAK EZ DU ARAZOA
KONPONTZEN LAGUNTZEN.
EZ DIRA SALBUESPENEZKO
MONSTRUOAK, PERTSONA
ARRUNTAK DIRA, OHIKOAK,
PATRIARKATUAREN ZUZENEKO
FRUITUAK.**

Silvia Agüero Fernández
(Pikara Magazine)



Diru-laguntzen auzian, Strasburgok ez ditu BVE eta GALen biktimak babestu

ARGIA

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ebatzi du Espainiako Gobernuak GAL eta BVEren biktimei diru-laguntzak ukatzeak ez duela zalantzan jartzen hauen "errugabetasun printzipioa", eta hortaz, ez duela urratzen Europako Hitzarmenaren 6. artikuluan azaltzen dena. Hala, senideek jarritako salaketa ez du aintzat hartu.

Espainiak Gobernuak diru-laguntza ukatu zien estatuaren gerra zikinaren ondorioz hildako familiarrei, ETako kideak zirelakoan. Baina hildakoak ez ziren sekula epaituak eta terrorista gisa kondenatuak izan, egindako ustezko delituengatik. Hala, GAL eta BVEren hamar biktimen senideek Estrasburgora jo zuten, euren errugabetasun printzipioa auzitan jartzen zuelako erabaki horrek.

Giza eskubideen auzitegiak ebatzi du kalte-ordainak ukatzearekin Espainiak ez duela urratzen Europako Hitzarmena eta ez du aintzat hartu salaketa. Hala ere, Estrasburgok ez du iritzirik eman biktima horiek kalte-ordainak jasotzeko eskubidea duten ala ez deliberatzeko orduan.

Espainiak 2011ko biktimen legea erabili du diru-laguntzak ukatzeko; horren arabera estatuak ez ditu zertan indemnizatu talde terroristan parte hartu izan duten kide edo senideak. Baina, Estrasburgon salaketa jarri duten biktimen artean ez dago ETakoa izateagatik epaitutako inor.

Europara jo aurretik, auzia Espainiako Konstituzio Auzitegian eztabaidatu zen eta tribunaleko bi epailek boto partikularra eman zuten, haien iritziz ere ez zegoe-lako frogatuta biktimak ETako kideak ziren ala ez. ●

GAIZKI ERRANKA

Oraindik oraingo diren orduko torturak



SANTI LEONÉ

Talde-kereila bat aurkeztu dute borts tortutaruk Antonio Gonzalez Pacheco Billy el Niñoren kontra. Lehenago izan dira bertze kereila batzuk, baina hau da borts biktimak batera aurkeztu duten lehena. Gizateriaren kontrako krimenak, preskribatzen ez direnak, leporatzen saiatuko diren heinean, esperantza pittin bat ba omen dute.

Borts biktimetarik bat, Esteban Cabal, elkarrizketatu zuen Mamen Mendizabal kazetariak *La Sexta* telebistan. Cabal zazpi egunez torturatu zuen Gonzalez Pachecok, 1976an –Franco hil ondotik, alegia– eta artean biktima adingabea zelarik –hamazazpi urte zituen–. Cabalek salatu omen zuen torturatzailea, baina, adingabea izanik, aitaren babesa behar zuen. Aitak ez zuen salaketa aitzinat eraman nahi izan; ama, berriz, prest omen zegoen, baina, gizonaren baime-na behar zuen.

Cabalek azpimarratu du, bertzeak bertze, torturatzaileak jaso dituen lau dominetarik hiru demokrazian eman zizkiotela: 1977an, 1980an eta 1982an. Mendizabalek galdegin dio ea orduan, torturatua izan zelarik, babesgabe sentitu ote zen; eta zer sentitzen duen orain ultraeskuina "falangismoaz harro agertzen delarik" edo iragana berriz piztu nahi duelarik. Ondotik, elkarrizketa une batez eten eta Grande-Marlaska jarduneko ministroa –epaile zelarik sekulan torturaren arrastorik ikusi ez zuen berbera– sartu eta argitu du zein arrazoi teknikok galarazten duten Gonzalez Pachecori domina horiek kentzea.

Ondorioa argia da: tortura iraganeko kontua da, eta kontu juridiko teknikoak direla ez dira torturatzaileak zigortzen ahal. Torturatu-ten testigantzak balio dezake, balio izatekotan, muturreko eskuina –zer da hori?– kritikatzeko, inolaz ere ez demokrazia zalantzan jartzeko. Hori ere narrazio konpartitua da.

Baina orduko torturak oraingo dira oraindik. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

ABUZTUAREN 10^{EAN}
ALTSASUKO GAZTEEK
3 URTE BETEKO DITUZTE
KARTZELAN...



"ZURE HERRIAREN HIZKUNTZA BERRESKURATZEAN
ZURE BURUA DESKOLONIZATZEN ARI ZARA INBASIO
ESTATALETIK, JURIDIKOTIK, LINGUISTIKOTIK"

**ANDI PORTAVOZ ETA GONZALO LUANKO,
HIP-HOP ABESLARI MAPUTXEAK:**

"Hizkuntzak zure herriaren pentsatzeko modua marrazten du, munduan egoteko manera. Herriaren jakintza eta bihotza da. Zure herriaren hizkuntza berreskuratzean zure burua deskolonizatzen ari zara, inbasio estataletik, juridikotik, linguistikotik deskolonizatzen. Erresistentzia modu bat da".

(Arg.: Luanko ezkerrean eta Portavoz eskuinean).

(ARGIA.EUS, 2019/07/19)



Kapitalismoaren aurpegi 'humanoa'



JUAN MARI ARREGI

AEBetako milioidun talde batek berrikitan eskatu du fortuna handiei zerga gehiago jartzeko, herritarren arteko desberdintasunak handitzen segi dezatela saihesteko. Eskaera sinatu dutenen artean George Soros enpresaria dago, Davoseko gailurraren sustatzailea; baita Cris Hughes Facebook-eko fundatzaileetako bat eta Disney eta Hyatt Hotels inperioen ondorengoak ere. Komeni da gogoratzea AEBetako milioidunek pilotzen duten aberastasuna –biztanleriaren %0,1 dira–, estatubatuarren %90aren ia parekoa dela.

Zer egon daiteke eskaera horren atzean? Munduko elitearen egoitza den Davoseko azkeneko gailurrak alarma jo zuen, desberdintasuna ikaragarri hazten ari den gizartean kaos edo iraultza sozial bat gerta daitekeelako. Desberdintasun hori sortzen duen Kapitalismoa, arrisku horren kontziente da. Horregatik onartu dituzte neurri sozial gehiago, eta horregatik nahi diete fortuna handiei zerga gehiago jarri: kaos hori saihesteko, iraultza soziala etor ez dadin. Bolborarekin jolasean ari dira baina, etekin milioidun horiek ekartzen dizkien sistema bera mantendu nahi baitute.

Testuinguru horretan, kapitalismo basatiaren aurpegia zuritu nahi dute, neurri sozialagoen bidez “humanizatu” eta masak lasaitzeko asmotan. Ez dute nahi jendea kalera irtetea, grebara joatea edo sabotajeak egin eta biolentzia erabiltzea, lehen industri iraultzari erantzuteko langileek egin zuten bezala edo gaur egun herrialde askotan –Euskal Herrian ere bai– zenbaitetan egiten den bezala. Ez dezagun ahaztu, kapitalismoa desberdintasun sinonimo da eta bere burua sostengatu behar du. Horregatik zuritu nahi dute. ●



EMAROCK

Lehen lerrotik

AMAIA LEKUNBERRI

Lerrokatu diren planetak bailiran bat egin dute nire bizitzan, epe-tarte oso motzean, pare bat irakurketak: orain urte batzuk Itziar Abadek *Pikararako* Nagore Garcíari egindako elkarrizketak, eta Uxue Alberdik Lisipe bildumaren baitan argitaratu duen *Kontrako eztarritik* (Susa, 2019) saiakerak. Lehenak Garcíaren master amaierako lana du hizpide, punk mugimendua ikuspegi feministatik aztertzen duena, eta bigarrenak emakume bertsolarien testigantzak jasotzen ditu. Bi planeta zeharo ezberdin lehen begi-kolpean, baina funtsezko antzekotasuna dutenak: bai punka zein bertsolaritza, biak gorpuzten dira gizonen jabetza izaten jarraitzen duten espazio publikoetan, eta horrek ezinbestean bilakatzen gaitu emakumeok osagarri, dakarren indarkeria guztiarekin.

Bilatu gabe, beren bidea egin dute irakurritakoek nire baitan, eta bateri irakurritakoak besteak hizpide duen eremuan aplikatzen hasi naiz ohartzeko. Eta nork bere sorora ura botatzeko joera duenez, amaitu dut gertukoagoa zaidan punk eszenara egokitzen Alberdik bertsolaritzan identifikatutako mekanismoak, emakumeen jarduna mugatzeko erabiltzen direnak. Bere buruari oso punk deritzon tipoak behinola bota zidan “guk punkok...” harekin oroitu naiz, ni taldetik at uzten ninduen; gau hartan bere taldearen kontzertua antolatu zutenetako bat izateak ez ninduen, bere begietara, “bat gehiago” egiten. Bertsolariak eskura jarritako erre-minta sorta eskuan, ez dut dudarik egin: bazterkeria. Atzetik etorri dira hamaika zapalkuntza soti lehen gehiagoren identifikazioak.

Hausnarketa horietan katramilatuta harrapatu nau Ermuko Vertigo Rock jaialdian jazotako eraso matxistaren salaketak. Desorden taldeko emakumeek Aramaioko Eguzkierri jaialdian pairatutakoaz oroitu naiz segidan. Hortxe subertsibotzat jo ohi diren eremu kulturaletan gertatzen diren hamaika indarkeria soti-lek sostengatzen dituzten indarkeria bortitzagoen adibide solte bi, biak astebete laburrean jazoak. Lagin esanguratsua denbora epe zabalagoan emakumeek –izan musikari, bertsolari edota ikusle– oholtza bueltan pairatzen dituzten eraso muntaz jabetzeko. Nola esan: eszenatokietan emakumeen presentzia faltak zerikusi gutxi du trebezia kontuekin.

Hiru hamarkada igaro badira ere, erabilgarri izaten jarraitzen du AEBetako kontrakulturan sortutako Riot Grrrl mugimendu feministaren aldarriak: Emakumeok* lehen lerrora! Zer esanik ez udaran, espazio publikoaz jabetzeko borrokan gudu-zelaiak biderkatzen zaizkigun honetan. Erasoak tokirik utzi nahi ez digutenen erreakzioa besterik ez dira, lekua egiten ari garenaren adierazgarri. Beraz gauetan, kaleetan eta jaietan bezalaxe, pauso bat bera ere az atzera plaza eta oholtza inguruetan ere. Eutsi lehen lerroari, ekin autodefentsa feministari. ●



SUTEA LONDRESKO ERRAUSTEGI BERRI-BERRIAN

KEZKA LARRIA HERRITARREN ARTEAN. Uztailaren 11n sutea piztu zen Londresko Croydon auzoan Viridor konpainiak oraindik probatan darabilen erraustegian. Konpainiak 'sute txikia' izan dela esan arren, zenbait hedabidek istripu larritzat jo dute eta su-hitzaileek egun oso bat behar izan zute garraio itzaltzeko. Croydoneko erraustegiak teorian 2018rako egin behar zuen indar betez lanean, baina orain arte ez dute lortu normaltasunez funtzionatzea eta proba fasean jarraitzen dute.

BERLIN 670

Etxebizitza erosiko dituen Berlingo hiri-estatuko gobernauak Karl-Marx-Allee hiribide historikoan, gentrifikazioa eta alokairuen gorakada oztopatzeko.

90-100 milioi euroko gastua izango du operazioak. Azaroko mobilizazio jendetsuen ondoren hartu du erabakia.



80ko hamarkadako latak Pirinioetan

URKO APAOLAZA

Pirinioak alde batetik bestera ari da gurutzatzen Rafael Sanchís aktibista valentziarra uda honetan, eta bidean topatzen dituen zaborrak berekin eramaten ditu: egunean kilo erdi eta kilo bat hondakin artean, gehiago ezin: "Gutxi dirudien arren, gauza askoren zati-txo asko dira". Bidean azaltzen zaizkion zabor zatiak jasotzen ditu Sanchísek, dela mendizaleei motxilatik erorita-koak, dela jendeak nahita utzitakoak. Aragoiko zatia pasa berritan *Heraldo de Aragon* egunkariaren galderei erantzun die: "Mendi hauek izugarriak dira, politak bezain gogorak, baina garbitasunean ez dute azterketa gainditzeko, ez hauek ez Pirinioetako inongo tokik ere".

PLASTIKOA GURE MENDIETAN

Ez da Everesteko kanpamendu-basera joan behar lotsagorritzeko. Ekintzailak bere ibilian ikusitakotik ondorio bat atera du: "Zoritzarrez plastikoa gure mendietara iritsi da". Eta sarbidea errazagoa den lekuetan are eta zabor gehiago pilatzen dela ere ikasi du. Horrela gertatzen da, esaterako, turista gehien joaten den Ordesan: Gorizeko aterpera dauden hiru orduko ibilaldian paperezko hogeita hamar mukizapi eta plastikozko objektu ugari bildu ditu. Kataluniako Cap de Creusen abiatu zen ekainaren erdialdean eta Euskal Herrian amaituko du aurki, Higer lurmuturrean, GR-11 ibilbidearen 800 kilometroak osatuz.



JAVIER MAROTO Arabako PPko buruzagiak ez zuen lortu eserlekurik Espainiako hauteskunde orokorretan, baina hala ere senataria izango da. PPK badu Gaztela Mانتخان senatari bat izendatzeko aukera eta berari eskaini dio.



USTELKERIA ZANTZUAK ALONSOTEGIN. José Luis Erezuma alkate ohiak (EAJ) epai-learen aurrean onartu du 2012ko euriteen kalteei aurre egiteko agindutako lanak ez zirela egin. Udalak 600.000 euro ordaindu zizkion Laneder enpresari.



LORENTXA BEYRIE euskal preso politikoa –18 urte espetxean– aske uzteko agindu du epaileak. Prokuradoreak aurkako-rik esan ezean, libre geratuko da Parisen eta Lucio Urtubia nafar militante anarkista ezagunaren etxean biziko da.

VIKTOR GORXKOV

BIZIARENTZAKO CO₂-A BAINO LARRIAGOA OIHANEN SUNTSITZEA DELA ERAKUTSI DUENA

Maiatzaren 10ean 84 urterekin hil da Viktor Georgievitx Gorxkov fisikaria, euria eta oro har klima esplikatzeko Punpa Biotikoaren teoria sortu zuena. Bere hurbileko laguntzaile Anastassia Makarieva irakasleak idatzi du: "Biosfera umezurtz geratu da". Eta klima aferetan aditua den Ugo Bardik: "Punpa biotikoa ez da orain arte klimaz dakiguna osatzen duen xehetasun bat gehiago, ekosistemaren lan egiteko moduari begiratzeko modu iraultzaile bat da".

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

San Peteretsburgeko Fisika Nuklearrerako Institutuan aritu da lanean Viktor Gorxkov hil arte, Fisika Teorikoko ikerketa-buru. Institutuak bere hil-oharrean azaldu duenez, mundu mailako fama lortu zuen kuantuen teoriaren alorrean. Baina historian aipatua izango da Punpa Biotikoaren teoriagatik. Azken urteotan Gorxkovek Anastassia Makarieva irakaslearekin batera zabaldu duen teoria oso eztabaidatua da eta zientzialarien gehiengoak onartu gabea, baina Ugo Bardiren hitzetan "arrazoia baldin badaukate, zirrara eragiteko modukoa da. Zeren eta esan nahiko baitu ekosistemak Lurraren klima kontrolatzen duela orain arte uste izan dena baina askoz hein handi eta sakonagoan".

Punpa Biotikoaren teoriaren arabera, basoak dira ura itsasoetatik lehorrerantz punpatzeko makina izugarri indartsuak. Oihanak, ez soilik zuhaitzak edo belazeak edo soroak: ondo osatutako benetako basoak behar dituzu makina abian atxiki eta biosfera behar duen adina urez asetzeko. "Eta gizakiok -laburbiltzen du aspalditik datorren hondamendia Bardik- bizia ematen diguten oihanak suntsitzen ari gara".

Gorxkoven teoriaren xehetasunak nahi dituenak internetez eskura ditzakete Anastassia Makarievarekin batera egindako bi elkarrizketa, bata 2010ekoa gaztelaniaz *El Tiempo* meteorologiazko weberako eta ingelesez bestea, 2012koa, *Mongobay* hedabide ekologistarentzat. Plazaratutako lanak,

hitzaldietan eskainitako materialak eta beste, egileek jarrita dauzkate www.bioticregulation.ru gunean.

Punpa biotikoaren teoriak dauzka osagai fisiko eta ekologikoak. Fisikoak: haizeek jotzen dutela ur lurrinaren kondentsazio apaleko eremuetatik kondentsazio altuko eremuetara. Ekologikoak: hosto berdeen ebaporazio ahalmenagatik, lurrinaren kondentsazioa handiagoa dela oihanen gainean ozeanoen gainean baino.

Uraren zikloa martxan atxikitzeke garraibide bat behar da hezetasuna itsasotik lehorrerantz eramanean dezan eta horixe eragiten du punpa biotikoa. Haizeak itsasotik lehorrerantz jotzen du baldin eta hemen oihanak badaude, kontinente barruan euriak eraginez. Euriok berdinduko dute mendietatik itsasorantz grabitatearen poderioz errekek eramandako uraren galera.

Mekanismoari deitu diote *biotikoa* mugiarazten duena ez izaki bizidun bakar bat baizik eta gune bateko biota natural osoa delako, eremu horretako bizi konplexu guztia. Punpa biotikoak osotasunean funtziona dezan, eremu batek bere ekosistema osoa bizirik eduki behar du, izan zuhaitz, belar, sasi, bakterio, onddo eta animalia.

Gorxkoven teoriak meteorologian nagusi diren ideiekiko paradigma aldatzea proposatzen du, planetako haize, euri, urakan eta abar deskribatu eta arrazoitzeke modu berria. Garaiotan hainbeste eztabaidatzen den klimaren

aldaketaren inguruan ere azalpen eta pronostiko ezberdinak eskaintzen ditu.

Zientzialarien iritzi nagusia da klimaren aldaketa eragiten duela zibilizazio industrialak isuritako karbono dioxidoak, erregai fosilak kiskaltzean aire-ratutako CO₂ak. Ondorioz, klimaren aldaketari aurre egiteko proposatzen den estrategia nagusia da karbono isuriak murriztea. Ez da berdin ikusten Punpa Biotikoaren teoriatik begiratuta.

KLIMAREN BEROTZEA EZ, DESEGONKORTZEA

Gorxkov eta Makarievaren ustean, klimaren modelizazioak egin dituzten zientzialariek formazio teknologiko handia bai baina ekosistemen funtzionatzeko eraz ezagutza gutxi daukate. Punpa biotikoaren arabera, Lurrak noizten duen negutegi eragina nagusiki ur lurrinak, hodeiek eta abarrek baldintzatzen dute, atmosferaren hezetasuna, hori da negutegi substantzia garrantzitsuena. Eta oihanak dira hezetasunaren arduradun nagusiak. Ondorioz, oihanek osorik eta bizirik irautea izan behar du estrategia nagusia. Batetik, basoek badutelako CO₂ gehiago irensteko ahalmena. Bestetik, oihanen suntsiketak aurrera jarraitzen baldin badu, CO₂a murrizteak ez duelako klimaren zortzea konponduko.

Amazonia da planetako punpa biotiko indartsuena, Atlantikotik ur masa izugarriak barneratzen ditu lehorrean kilometro askotan barrena. Zer gerta-

**VICTOR GORXKOV**

ETA ANASTASSIA MAKARIEVA
IKERLARIAK ELKARREKIN ARITU
DIRA SAN PETERSBURGOKO FISIKA
NUKLEARREKO INSTITUTUAN.

tuko da Amazoniako oihana suntsitzen baldin badute? Klimatologoek gehien-
goak aurreikusten du eskualde hartan
euri-urak %20-30 murriztea. Aldiz, Ma-
karieva eta Gorxkovek diote balitekeela
galera %95eraino iristea. Hori gertatu
omen zen Australian, duela 50.000 urte
gizakiak iritsi eta bertako basoak desa-
gerrarazita basamortua eragin zuenean.

Eta klimaren krisiari aurre egingo ba-
genio zuhaitz landaketa masiboak egi-
nez? “Zuhaitz espezie gutxi batzuekin
egindako baso-berritzeek ez daukate
punpa biotikoa abiarazteko ezaugarriak.
Bi adibide oso sinplifikatu jartzeko: kak-
tusak aldatzen baldin badituzu, ur oso
gutxi ebaporatuko dute eta ez dute lor-
tuko atmosfera heze atxikitzerik; euka-
liptuak landatzen badituzu, arin hasiko
dira ebaporatzen baina ez dira gai izan-
go lurra heze atxikitzeko. Batean bezala

bestean, punpa biotikoak ez du funtzio-
natuko. Txinako landaketa masiboetan
funtzionatuko ez duen moduan”.

Oihanen suntsitzeak berehala da-
kartza eurien bakantzea eta erreken
idortzea, azken mendeetan ikusi denez
Errusian, Kolonbian eta abarretan. Ba-
so-berritze ahaleginek klimaren gain
eragina izateko urteak ez, hamarkadak
behar dira, gune zabal batean biota oso
bat antolatzeke denbora. Horregatik
ikerlariok lehenetsuna ematen diote as-
paldiko oihanei zutik eta osorik eusteari.

“Klimaren edozein aldaketa ‘planeta-
ren berotzeari’ egotzi ohi zaio, baina de-
sertifikatzea oso bestelako zerbaiti zor
zaio: atmosferako hezetasunaren punpa
biotikoaren hondatzea da arrazoia. Hau
da Punpa Biotikoaren teoriaren mezu
nagusia: lur gaineko uraren zikloaren
osasun ona lotuta dago nagusiki landa-

rezko estalkiaren egoerari eta ez hain-
beste baldintza geofisikoei. Ohartarazi
nahi dugu ekosistema naturalen mundu
mailako suntsiketak klimaren desegon-
kortzea dakarrela, eta horrek ez du esan
nahi derrigor berotzea. Ezegonkortzeak
ekarri dezake Lurra ‘elur bola’ bihur-
tzea edo negutegi eragina izugarri han-
ditzea, baina biak ere biziarekin batera
ezinezko egoerak. Klimaren aldaketa ez
da beroketa globala, baizik eta klimaren
egonkortasunaren galera.

Baso naturalak berreskuratzen urte
asko behar dira, punpa biotikoa oso-
ki lanean eduki arte. Askoz errazagoa
da lehengo oihanak babestea berriak
haztea baino. Oraindik ez dugu garatu
ekosistemaren osasuna zaintzeko me-
dikuntzaren zientzia. Bitarte horretan,
premiatzkoa dugu daukagunari bizirik
eustea”. ●

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f i

Anartz Gorrotxategi

ALKATEA EUSKARAZKO LEHEN KOMIKI-ALDIZKARIAREN ATZETIK



HERRI TXIKIETAN ERE, GAUZA BATZUK HANDIAK EGITEN DIRA



Joan den urtearen amaiera arte ez genuen jakin. Behin eta berriz eta askotan desagertutzat emandako euskarazko lehen komiki-aldizkari *Txistu*-ren ale guztiak bildu zituen Arabako Arraia-Maeztu udalerriko alkate gazteak. Izan ere, udalerri horretako Musitun jaioa izan zen komiki haren egilea: Abdon Gonzalez de Alaitza.



MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Abdon Gonzalez de Alaitza Azazetari buruzko txostena osatu duzula jakin dut. Euskarazko lehen komiki-aldizkariaren sortzailea omen.

Horixe diote. Duela lauzpabost urte zer edo zer irakurri nuen Abdonen gainean, baita Juan Bautista Gamizen gainean ere. Gu bizi garen Arabako Mendialdeko bi pertsona ospetsu, azken finean. Zer edo zer irakurri nuen bi kultur gile horien gainean, eta informazio gehiago bilatzen hasi nintzen, interneten, artxibategietan... eta, bildutako informazioa hartu eta txosten bat osatu nuen. Arraia-Maeztuko alkate nintzen, eta [Arabako] diputaziora jo nuen, kultura diputatuarekin hitz egin eta proposamen bat egitera: bai Gamizi buruz eta bai Abdoni buruz, argitalpen bana egitea. Baina Gamizi buruz

egina zeukatela esan zidaten. Eta egia da. Eta, bestalde, Sabandon [Arraia-Maeztu] bertan Gamizek badu oroigarriarik, plaza baten izena. Alaitzak, berriz, ez zeukan jaiotetxeko idazkuna eta hilerriko harria besterik. Jendeak ezer ez zekien Alaitzaren biografiaz. Gauza gutxi. Zenbait aditurekin hitz egin nuen eta zenbait datu helarazi zizkidaten, baina momentuan bertan jabetu nintzen haien datuak nik neuk lehendik neuzkan berak zirela. Hala ere, Javier Díaz Nociren berri eman zidan Jose Mari Velez de Mendizabalek, eta haren email helbidea.

Gasteiztarra da Díaz Noci, irakasle Bartzelonako Pompeu Fabra unibertsitatean.

Eta harremanetan jarri nintzen bera-

rekin. Hark ere eskura zeuzkan datu guztiak bidali zizkidan. Artikulu bat ere bai, *Txistu* komiki-aldizkariaren alerik ez dagoela esaten duena, besteak beste. Hilabeteak igaro eta gero, Díaz Nociren beste mezu bat jaso nuen, esanez Koldo Mitxelena Kulturuneko webgunean *Txistu* komikiaren aleak aurkitu zituela. "Arraioa!", esan nion neure buruari, "Komikiak azaldu dira!". Eta KM kulturunera jo nuen, haiekin harremanetan jarri nintzen, eta hura ezustea! Hantxe *Txistu*-ren hamasei aleak! Eta orduan, bai, Alaitzaren biografia idatzi behar zela erabaki nuen, luze edo labur, baina idatzi behar zela, edo bestela, komikia berrargitaratu behar zela. Aldundira jo nuen berriro, komikiak inprimatuta, eta lana egin behar zela guztiz erabakita. "Hau argi-



Anartz Gorrotxategi Elorriaga

GASTEIZ, 1986



Olabide Ikastolako ikasle, handik kanpo egin behar izan zituen DBH eta Batxilergo ikasketak. Delineatzailea da. Forondako aireportuan eta Arraia-Maeztuko alkate lanean ari da. Kultur ondarea du zaletasun, zuzentzen duen udalerria bezainbat. Arraia-Maeztuko Musitun jaio-tako Abdon Gonzalez de Alaitza Azazetaren aztarnaren atzetik zebilela, 1927an ARGIA aldizkariak barruko orrialdeetan argitaratu zuen *Txistu* euskarazko lehen komiki-albizkariaren ale denak bildu ditu, Javier Díaz Noci irakaslea lagun.



taratu beharra dago. Zuek laguntzen ez badidazue, argitaletxeren batekin hitz egingo dut, Alaitzaren biografia eta haren lana publikatzeko, *Txistu*. Burugogorra naiz, eta egingo dut!”

Bigarren aldiz izan zinen Arabako Aldundiko Kultura Sailean.

Bai, eta haiek ere jabetu ziren: “Bigarren aldiz zatoz, baina oraingoan materiala duzu. Aztertuko dugu”. Eta aztertu zuten, eta Alaitzaren gaineko lanaz arduratuko zen pertsona batekin kontaktatu zutela esan zidaten, eta hura harremanetan jarri zen nirekin, eta bidea egin genuen:

euskarazko lehen komiki-albizkariaren aleak berreskuratu ditugu, eta balizko egilearen biografia ere lantzen ari gara.

Zerk jarri zintuen Alaitzaren peskizan, haren urratsen atzetik.

Udalerria maite dut, eta Euskal Herriko kultur ondarea. Horiexek dira nire zaletasunak: ondarea, kultura eta, are, gure udalerria. Azterka hasi eta Gamiz eta Alaitza azaldu zitzaizkidan, baina seguru nago merezi duten izen gehiago ere badirela Arraia-Maeztun. Bestalde, alkate baino lehen, zinegotzi izan nintzen, 19 urterekin, eta, besteak beste, kultura

batzordean lan egin nuen, horixe baita nire zaletasuna. Alkateak, orduan, kulturari zegozkionak erabakitzekeo tartea utzi zidan. Zinegotzi eta gero, alkateorde izan nintzen. Gero, alkate. Orain, udaberrian, alkate aukeratu naute berriro, bigarren, eta zorionez, alkate naizen garaian ikusiko dut argitaratua Alaitzari buruzko lana. Ilusio handia egiten dit, hiru-lau urte ibili bainaiz jirabuelata Alaitzarekin eta Txistu-rekin.

Zertan da kultura Arabako Mendialdeko udalerri txiki batean?

Ez dakigu zein garrantzi eduki zuen euskarak hemen. Uste duguna baino presentzia handiagoa izan zuen, eta ondoko belaunaldiek horretaz kontziente izan behar dute, gure historia jakin behar dute: hemen euskaraz hitz egiten zela orain dela hirurehun urte, adibidez. Alaitza aipatu dugu lehen, eta hark Madrilen ikasi zuen euskaraz. Ezusteko galanta izan nuen hori jakin nuenean. Beti aipatzen dira Odon Apraiz, Xabier Landaburu, Federiko Baraibat eta beste, Gasteizen jaioak denak. Aldiz, Alaitza, Mendialdean jaioa, Musitu herrian, mila metroko altueran dagoen herri ttikian –zortzi-bederatzi bizilagun dira bertan gaur egun–, Madrileren joan eta sekulakoak egindakoa da. Ikaragarria.

Arabako Mendialdean horixe behar dugu, aitzakia bat, gure iraganari begira jarri eta garbi esateko: “Arabarrok ere bada-kigu euskaraz”.

Abdon Gonzalez de Alaitza Azazetak, Madrileren joan ohi ziren euskaldunak batzeko eginahalak eta bi egin zituen. Hein handian, bakarrik ibili zen, beti aurrera egin nahirik.

Arabako Mendialdean, Arraia-Maeztun, zenbatek partekatzen du zure gogo?

Egia da Abdonen modura egiten dudala askotan, aurrera,itsu-itsu, baina hori bezain egia da baditudala kideak. Ondarea aztertzekeo talde txiki bat osatu da, eta informazio iturri dira beti, eta gauzak egiten ari dira. Gainerakoan, Mendialdeko aski baztertuta egon da. “Mendialdekoak, gizagaixo horiek!”, esanez bezala. Baina gu ez gara gizagaixoak, kultura aberatsaren jabe gara, Lautadakoak bezain kultura aberatsa dugu. Hala ere,

euskararen historiaren gainean hitz egiten hasten direnean, adibidez, Lautada da beti ardatz. Inork ez du Mendialdeaz hitz egiten. Hasteko, inork ez zekien nor izan zen Abdon. Nahikoa da, ezta? Hemen egon gara, hemen gaude, eta hemen egongo gara, luzaro. Horixe da gure borondatea.

Gizagaixoak, esan duzu. Nola hartzen zaituzte zu, adibidez, Arraia-Maeztuko alkate, Gasteizera joaten zarenean, aldundi edo Jaurlaritzara?

Harrera ona egiten digute, akabo, bada! Baina Araba zer da, bada? Gasteiz duzu, makroenzefalia hori, batetik, eta bestetik, berriz, gainerako herri guztiak. Eta herriei esker osatzen da Araba, horixe da bere identitatea. Aldundian askoz harriera hurbilagoa egiten digute Jaurlaritzan baino. Jaurlaritzara joan Musitun arazo bat dugula esanez, bateko baso eta besteko erreka, eta Musitu non dagoen begiratzen hasi behar dute. “Non arraio da Musitu?”, eta mapa eskatu behar izaten diezu, eta Musitu non dagoen seinatu. Aldundian hurbilagoa da dena. Ez du ezer ikustekorik.

Zein dira Arabako Mendialdearen penak eta nekeak?

Hasteko, despoblazioa. Horixe da arazorik garrantzizkoena. Mendialdean erroldatuak ez gara 3.000 ere, eta 47 herri gara! Herri asko, biztanle gutxi. Arraia-Maeztun, 733 gara gaur gaurkoz, hamasei herritan banatuak. Maeztu eta Apinaiz ez beste herri guztiak, txiki-txikiak dira, baina herri txikitian ere, gauza batzuk handiak egiten dira. Abdon da adibide eta frogak, euskarazko lehen komiki-aldizkaria berak egin baitzuen, Madrilen.

Despoblazioari aurre egiterik badago?

Bai, aurre egin lekiok, nahiz eta Gasteiz beti hor egon, eta Gasteizen bizitzea erosoagoa izan. Dena dela, Mendialdeko despoblazioa, gogorrena, joan den mendeko 60ko hamarkadan hasi zen gutxi gorabehera. Gasteiz hazi egin zen, bateko fabrika eta besteko industria, eta hemengo nekazari askok ere hara jo zuten. Hiriak erakarmen indar handia izan

zuen. Hemen, bestalde, nekazariak ziren, ez zegoen dirurik. Joan den mendeko 60ko hamarkadan Gasteizera joan zirenak, hantxe geratu ziren, hantxe egin zituzten seme-alabak, eta hauek ere hantxe bizi dira. Garai batean hemen gelditu ziren gazte apurak, oraingo atso-agureak dira. Despoblazioa ez da, beraz, oraingo gertakaria, orain dela 60 urteko exodoaren ondorioa baizik. Egoera irauli nahi dugu, eta horretan ari gara. Arraia-Maeztun, esaterako, azkeneko hamar urtean hazi egin gara.



BUJANDA, KORRES, MAEZTU

“Amama, Korresen jaio zen. Ama, Bujandan, baina Gasteizen hazi zen. Aita eibartarra da, Gasteizera etorritakoa. Anaia eta biok Gasteizen jaio ginen, baina Maeztura etortzen ginen asetururo. Hemen osatu genuen kuadrilla, hamazazpi bat lagun ginen, denak ere Gasteiztik hona etortzen ginenok, eta hementxe bizitzen jarri gara dozena erdi. Joaten gara Gasteizera, egiten dugu lan, eta atzera Maeztura itzultzen gara. Hoge minutuko bidea da”.

FORONDA

“24 orduz irekiko dutela diote, baina bidaiariez ari dira. Gu beti ari gara lanean: Forondan paketeak jasotzen ditugu enpresa batzuetatik eta besteetatik. Aireportuan dira arratsaldean, eta gauez, hegazkinez, Leipziger, Bergamora, Lisboa, Sevil-lara... bidaltzen ditugu, goizeko zortzietan edota bederatzietan banatzaileak dena delako aireportuan guk bidaliak jaso eta goizeko hamarrek aldera jasotzaileak zuzen jaso dezan. Horretarako, gauez jardun behar dugu guk lanean, nahitaez”.



**Benetako
antzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)



ARKITEKTURA eta HIRIGINTZA
www.luark.com
948132697 - Arga ibaiak kalea 28-30 Iruña



tradebi@tradebi.com



Ogiaren egia

Ogi biologikoak
Harri errotan xehetutako irinarekin egindako ogiak
Orantza ogiak

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

Hara! Jende gehiago bizi zarete orain Arraia-Maeztun mende honen hasieran baino?

Bai. %5 gehiago gara, baina inguruko herri txikietatik etorri zaigu jendea. Adibidez, Birgara, Azazeta, Atauri edota Elortzatik gorako herrietatik. Populazioari eusteko, nahitaezkoak dira zerbitzuak, eta baditugu Arraia-Maeztun: medikua, garraioa, errepide egokiak... Mila metroko altueran gaude, baina elurra egiten duenean, laster dira lanean traktoreak errepideak garbitzen. Lautadan baino arinago egiten dugu lan. Esanak esan, ordea, bultzada behar dugu orain artekoari eusteko, eta aurrera jotzeko. Eta, batez ere, pentsamoldea aldatu behar dugu: lan egin nezake Gasteizen, baina Mendialdean bizi.

Arraia-Maeztuko alkate zaitugunez, erraza al da udala zuzentzea?

Egunero lan eginez gero, bai. Hala ere, hor da beti hirigintza, legediz eta araudiz bete. Gauza asko ez daude udalaren esku: aldundiaren erabakimen dira, edo Europarenak. Arazoren bat sortzen denean, hor dira beti herritarrak, eta haiei azaldu egin behar zaie hori, araudia zorrotza dela, gauza asko ez daudela udalaren esku. Alkateak ez du erabakitzen, normatiba bat dago, eta harixe lotuta egin behar duzu lan. Beste arlo batzuetan, aukera handiagoa duzu. Kulturen, adibidez. Nik esango nuke hirigintza kudeatzea ez dela erraza, eta, hirigintzarekin batera, jendearekiko harremanak ere arreta berezia eskatzen duela, antze handia. Auzoen arteko sesioak ez dira erraz ulertzen, nork bere bertsioa kontatzen du, nork bere egia du... Batzuk, psikologoaren gelara bezala sartzen dira alkatearen bulegora. Jendeak behar hori ere badu, beste inori kontatu behar dizkio bere kezak. Guk, lagundu ahal badiogu, primeran. Horretarako gaude, ezta?

Mendialdean, politikari. 19 urterekin, zinegotzi. Gero, alkateorde, alkate bi agintalditan...

Pilotan jokatzeko nuen, futbol-taldean, herriko jai-batzordean... Maeztu gustatzen zait, Maeztukoa sentitzen naiz, nahiz eta Gasteizen jaioa izan, eta politika gustatzen zait. Etxeko giroan ere hortxe zegoen beti politika. Eusko Alderdi Jeltzalean sartu nintzen 18 urterekin, eta handik urtebetera zinegotzi aurkezteko eskatu zidaten. Pentsatzeko ere esan zidaten. Nik, ez nuela pentsatu

beharrik esan nien. "Udalean zinegotzi sartzeko aukera baldin badut, eta herriaren alde lan egiteko modua baldin badut, egingo dut!". Garai hartan, Eusko Alderdi Jeltzaleak eta independenteek hiruna zinegotzi zituzten; zazpigarrena, Alderdi Popularrarena zen. Laugarrena nintzen zerrendan, eta ez zen seguru aterako nintzela. Baina atera nintzen. Orain, Maeztu ez ezik, udalerria da nire helburua, batzuk eta besteak ezagutzen ditut, ez izenak edo nongoak diren bakarrik, beren biziak, beren kezka eta gorabeherak baizik: pertsonak. Guztiz aberasten naute udalerriko pertsonak. Esaterako, ezagutzen nituen Jesus eta Magdalena, Musitukoak, baina egundo ez nuen pentsatu Abdonen oinorde zirela. Ikaragarria! Handiak gara Arabako Mendialdean!

Udalbatzarretan egiten al duzue euskaraz?

Gutxi. Zazpi zinegotzietan, lauk ondo dakigu euskaraz. Bat, hortxe-hortxe dabil. Bik, ez dakite hitzik ere. Udalerriaren argazkia duzu, azken finean. Gazteok badakigu, baina ez dugu hitz egiten. Horietakoa naiz ni. Lagunarteko kuadrillan denok gara euskaldunak, baina ez dugu euskararik hitz egiten. Behar bada, umeak jaio zaizkigunean, euskarara itzuli gara. Kanpainak egiten dira, Euskaldia, Korrika eta beste, baina jendea ez da aktibatzen. Nik, bestalde, orain dela lau urtetik hona hartu dut hitz egiteko trebetasuna, tokatzen zaidalako, eta gustatzen zaidalako, baina, hasieran, beldurra ematen zidan, hitz asko ahaztu egin zaizkidalako. Hala ere, saiatzen naiz.

Alkate zara, eta aldi berean, Forondako aireportuko langile.

Bai, goizeko lauretatik goizeko zortzietara egiten dut lan Forondan, multinazional batean, paketerian. Goizeko hiruretan jaikitzen naiz egunero. Forondako lana egin eta etxean naiz zortzi eta erdietan. Dutzatu, gosaldut eta goizeko bederatzia eta laurdenetan udaletxean naiz, eguerdiko ordu biak arte. Bazkaldu, eta bi orduko lo kuluxka egiten dut, derrigorrean, bestela ezin dut iraun. Behin baino gehiagotan, bilera izaten dut arratsaldean... Iluntzean, emaztearekin eta alabarekin egon nahi izaten dut, eta hamaikak aldera-edo, ohera behar izaten dut. Gauean hiruzpalau ordu egiten dut lo, arratsaldean, bi. Nire erloju biologikoa zeharo aldrebestuta dabil. Gogorra da. ●



Iritziak

Elkarrekin hobeto



IRATI LABAIEN EGIGUREN
EHU-KO IRAKASLEA

Uztailaren lehenetik martxan da EuskarAbentura, 150 lagunez osaturiko espedizio ibiltaria. Proiektuaren izenak berak adierazten duen moduan, euskara erroan dagoen elementua da; euskarak dituen euskalkiez baliatuz, Euskal Herriko askotariko parajeak bisitatu dituzte, etapaz etapa gure historiaren hainbat gertaera deskubritu, eta euskal kulturako erreferente direnetatik ere ikasi dute. Haatik, bada EuskarAbenturak hasieratik zehaztua zuen beste ardatz bat: euskal gazteen sarea sortzea, nolabait, bizitzen ari diren momentu ahaztezin horietatik hartu-eman sendoak eraikitzea.

Duela 80 urte, Harvard Unibertsitatean ikerketa bat jarri zuten martxan. Bizitza osasuntsu eta zoriontsua izateko bidean, garrantzitsuak izan zitezkeen aldagai psikosozialak identifikatzea izan zen jomuga nagusia. Horretarako, bertan parte hartu nahi izan zuen 724 gizon neraberaren lagina identifikatu zuten, eta gezurra badirudi ere, ikerlana martxan izan zen zortzi hamarkadetan, bizitzarekiko gogobetetasun mailaren inguruko inkestak betetzeaz gain, noizbehinkako osasun azterketak ere egin zituzten. Nerabetasunetik zahartzarora, bizitzaren etapa desberdinak pasa zituzten parte-hartzaileek prozesuan zehar, eta gizakia aldakorra den aldetik, hamarkada horietan guztietan, euren

Badago EuskarAbenturak hasieratik zehaztua zuen ardatz bat: euskal gazteen sarea sortzea, nolabait, bizitzen ari diren momentu ahaztezin horietatik hartu-eman sendoak eraikitzea

zoriontasunaren inguruko ikuspuntu eta pentsamenduak aldatuz joan ziren. Robert Waldingerrek, egun proiektuan lanean dabilen ikertzaile eta irakasleak, atzemandako ondorioz nagusienak bistaratu zituen 2015ean. Oro har, askotariko ibilbideak izan zituzten gizon horiek: hainbat lagun, egoera xumeetatik bizitza arrakastatsua izatera igaro zen, eta beste hainbatek aitzitik, kontrako prozesua bizi izan zuen, gailurrean egotetik hondoa jo zuen. Edonola ere, bizitzako gertaeretatik harago, bada, modu orokor batean eman zen gertaera azpimarragarria: norbanakoaren erlazio sareek, zoriontasun eta osasunean eragin positiboa dutela dio Waldingerrek; hau da, harreman egitura sendoek, alaiago bizitzera bultzatzeaz gain, urte gehiago bizitzea omen dakar.

Antzeko ondoriara iritsi zen Stewart Wolf mediku eta ikertzaile estatuba-

tuarra ere. Pennsylvaniako Roseto hirian, bihotzekoak emandako 50 urtez azpiko pertsonen ratio baxuaz harrituta, 1960an fenomeno hau ikertzen hasi zen. Antzeko ezaugarriak zituzten bestelako hiriekin alderatuta, Rosetoko italiar jatorriko biztanleen bizitzeko moduan jarri zuen arreta. Wolfen ustez, bertakoen bizitza kolaboratiboa kontuan hartzea ezinbestekoa zen fenomeno ulertzeko.

Eztabaida ugari eragin dute lan horietan ateratako ondorioek. Egun, epe laburreko arrakastetan oinarritzen den bizitza eredua dugu, zenbakitu daitezkeen lorpenetan errotzen dena. Erlazio sareek indibiduoetan izan dezaketen eragin positiboa aintzat hartzeak, norbanakoan eragina duten eta zenbatu ezin daitezkeen aldagaiak ere garrantzitsuak direla onartzea suposatzen du. Gainera, epe motzeko erdiespenen eredua ez dator bat harreman osasuntsuak zaintzearen filosofiarekin; izan ere, egiari zor, hartu-emanak ez dira errazak; hitzak berak dioen moduan, hartu eta emanekoak dira, begirada luzea dute denboran, eta nola ez, zaintzarekin batera doan prozesua da. Prozesua, eta ez helburua.

Ez dakigu EuskarAbenturak Harvard Unibertsitateko ikerketak bezainbesteko bizitza izango duenentz, baina susmoa dut bertatik sortutako sareek, luzaroan, zorionaren argitxo bat mantenduko dutela guregan. ●

Lodifobia



ANTTON OLARIAGA



JUNE FERNÁNDEZ
KAZETARIA

Uda garai oparoa da argaltasunaren diktadurari buruz hausnartzeko, fresko baitugu bainujantzia jartzerakoan emakume gehienok sentitzen dugun ezinegona. *El Salto* egunkarian Sarai Walker *Dietland* eleberraren egileak haxe azaltzen du: “Emakumeen gaineko presioa argal egon daitezen, kontrol sozial mota bat da. (...) Gizarteak emakume lodiak zigortzen ditu, gorputz femeninoari lotutako ideia patriarkalak obeditzen ez dituztelako. (...) Loditasuna gai feminista bat da”.

Lodifobia pertsona lodiek pairatzen duten egiturazko indarkeria eta gorroto diskurtsoa da. Lodi ez gaudenok argal mantentzeko presioa bizi dugu, baina ez dugu indarkeria lodifoboaren krudeltasuna ezagutzen eta ez gara gorputz normatiboa izatearen pribilegioez ohartzen; esaterako, lana bilatzeko orduan.

Erresistentzia handiarekin topo egin ari da lodifobiaren kontrako mugimendua, gure jendartearen zeharo errotuak baititugu hiru mito: 1. Lodi egotea ez da osasuntsua. 2. Gorputz lodiak higuigarriak dira. 3. Loditasuna bertute moral eskasaren ondorio da (sabelkeria eta nagikeria).

Hiru mito horiek deseraikitzen dituzte lodiaktibistek. Biziki gomentatzen dizuet *Klitto* eta *Topatu* atari digitalek egindako erreportaje multimedia, ARGIA-ko webgunean ere topatuko duzuen.

Osasunaren mitoa iruditzen zait bereziki maltzurra. Pertsona baten tainuak ez du bere osasun egoera edo ohiturari buruz ezer fidagarriarik adierazten. Badaude begano lodiak edo kirolzale lodiak. Badaude ere pertsona argal sedentarioak eta Mc Donalds zaleak, baina horiek ez dute bigilantziarik jasotzen. Diabetesak baino min handiagoa eragin dezake bazterkeriak, baina lodien osasunaz hain kezkatuta omen daudenei bost axola lodifobiak eragiten duen kalte emozionala. Magda Piñeyro ekintzailearen hitzaldi batean neska lodi batek kontatutakoa dut gogoan: depresio baja batetik lanera itzuli zenean, lankideek “Oso guapa zaude! Argaldu duzu!”, esan zioten.

Lucrecia Massonek ARGIA-n azaldu du gorputz-masaren indizeak Frantzia duela iturburua eta, kolonialismoaren ondorioz, gorputz kaukasikoetan egindako kalkulua mundu osora zabaldu dela. Medikuek estamentuaren rolaz ere ari da, Danele Sarriugartek egindako

elkarriketa horretan: medikuak bakarrik esan diezaguke zer den ona eta zer txarra, aspaldi apaizak bezalaxe.

Haurdun nagoela topo egin dut osasun sistemaren diskurtso lodifoboarekin. Haurdunentzako yoga klaseetan askok kontatu dute erditu arte mediku eta emaginen presio ikaragarria bizi izan dutela estatistikaren arabera “gehiegi” loditzeagatik, nahiz eta elikadura ohitura egokiak izan eta ariketa fisikoa egin. Bost hilabetez nire pribilegioaz gozatu dut eta ingurukoen hitz goxoak jaso ditut: “A ze sabel polita! Ez zara batere loditu!”. Pasa den astean, emagin berri batek pisua neurtu dit eta errieta egin dit doinu paternalista nazkantearekin: “Hiru kilo hilabete batean! Zer gertatu da ba? Orain arte oso ondo egin duzu! Tira, kontrola zaitze. Guztira ezin duzu hamar kilo baino gehiago loditu”. Nire errua da, zer edo zer txarto egiten ari naiz eta nire gorputza kontrolatu behar dut estatistikari obeditzeko. Esandakoa: sistemarentzat loditzea osasun arazoa omen da (egia esan, emaginari bost axola ea nire burua ondo zaintzen dudana; nire pisua da inporta duen aldagai bakarra), baina baita ere bekatu bat. Orain penitentzia egin beharko dut izozki bat jaten dudana bakoitzean. ●

Barne eztabaidak, gure gauzak



AHOZTAR ZELAIETA
KAZETARIA

Urtebete neraman festetan ibili gabe eta Santutxuko jaietan aukera izan dut. *Herrikoa*-n txanda egiten zebiltzan militante beterano batzuek aitzakia eskaini zidaten barne eztabaidaz mintzatzeko. *Gure gauzak* aspaldian aparkatuta nituen. Urte mordoxka izan ziren *Kremlina*-ren komisarioekin harremanetan eta azken garaio-tan EH Bilduko *friki*-ekin.

Umorearen perspektibaz nahiko nuke jardun, gehiago ez dramatizatzearren batik bat, zeren nabaria baita “disidentzia” eta “ofizialismoaren” arteko zalaparta. Bi mutur horien artean bada-go ortzadar bat eta aldarrikatzea merezi du. Gure buruaz barre egin eta proposamenak bideratzeari sanoagoa deritzot, abizen ezberdinetako gure familia honetan aurkariak bilatzeari baino.

Esperientzia pertsonaletik hasiko naiz. Kontuan izan, 1999. urtean *Ardi Beltza* proiektu komunikatibo independentista, ezkertiarra eta internazionalista martxan jartzen parte hartu nuela. Izen hori propio hautatu genuen eta “Aita santuaren” bedeinkapenik gabe jaio zen aldizkari hura. “Vatikanoarekin” apurtzeko ausardia, *Primo de Zumosol*-en garaian, elkar ulertzea eta maitatzearekin lotuta zihoazen. Gure ezberdintasunen gainetik, helburu

amankomunak bilatzearen iparrarekin aritu ginen. Are gehiago, publiko bera zen gure *target object*. Adar ezberdinak zituzten idiak, bat eginik gurdia bultzatzeko asmoarekin.

Ikuspuntu profesionaletik diot me-rezi duela gure frustrazioak modu erakitzailean bideratzea. “Euskaldun txar” honek, abertzale ezkertiar zahar eta berriak elkarlanean jardutea nahiko luke, alde kolektiboaren onurarako izango litzatekeelako. Barkatuko dida-zuelakoan gehituko nuke nire ikerketalanak burutu eta zabaltzeko erraztasun handiagoak izango nituzkeela. Ez nireak direlako, baizik eta iritzi publikoak eskubidea duelako informazio horiek interesgarriak diren aztertze-ko, eta militanteek horiek ahalbidetzeko ardura dutelako, beraien arteko eztabaiden gainetik.

Autokritika moduan, nire uste apa-lean, kritikoak izan garenok pauso bat eman dugu atzera azken urteotan, eta hutsune hori “ofizialismoaren burokratek” eta “disidentziaren demagogoe-” bete dute. Bi talde horietan lagun mi-nak dituen batek diotsue. Ni bi zubi ar-teko ortzadarraren aldekoa naiz, Txus Martín euskal preso politikoa izan bai-tzen ezker abertzaleko kimu bilakatu ninduen. ●

Zutik Leon



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Zutabe hau irakurriko duzunera-ko, irakurle, Baionako bestak bete-be-tean dirateke. Zaborrak karriketan. Pixa urrina bazterretan. Zuri eta gorri ase-a denetan. Taloak han eta hemen. Dantza eta kanta, txarangen gibeletik. Disgustua eta emozioa batera, erraiak uzkailezrai-no. Zortzi euro soiletan. Gure tabernari-ek, legenda urbano baten ildotik, sei egune-tan urteko benefizioa meta dezaten...

Denboran, Cordeliers karrikan bizi nintzen, eta gaurik sutsuenetan, oren erdia ematen nuen, jendetza zulatuz, 16. zenbakiko etxeko sarrerara heltzen. Gorputz saldo alkoholizatuak nazka

hazten zidan eta beti erabakitzen nuen biharamunean ez nintzela aterako. Ku-riositatea deliberoa baino azkarragoa zen eta kanpoan nintzen, Leonen deia entzun orduko.

San Izpiritun ohatzen naiz dagoeneko eta besta eremuan sartzeko zubi puntako kontrola hesia pasatzen dut, beso-mu-turreko zintatxo berdea erakutsiz, eta beharrean, *moloza* batek eskatuz gero, nortasun agiria ere bai. Santuen Santuan sartzeko baimena ematen didate, baina ez dut gehiago dirua gastatzeko gogorik.

Ivan Illichen arabera, hor kontra-pro-dukzioa bilakatzen naiz. ●

XXI. menderako erabakiak Donostian



ZIGOR ETXEBURUA URBIZU
DONOSTIAKO UDALEKO ZINEGOTZIA

Duela hogeitau urte antolatu zen *Bai Euskarari* ekimena, entitateak bul-tzatzeko beren erakundeetan euskararen erabilera zabaltzeko konpromisoak hartzera. Altza izan zen Euskal Herrian abiatu ziren esperientzia pilotuetako bat eta udalaren babesak izan genuen. Datorren urtean, antzeko ekimen bat abiatuko du Intxaurren auzoak, udalaren babesarekin hori ere.

Hogei urteotan, euskararen ezagutza handitu da Donostian. Gainera, erakundeetan ere euskaraz gaituta dauden langileak askoz gehiago dira. Gauzak horrela, udalak eredu izan behar du, herriarrok egiten ari garen ahalegina lagundu behar du, gurekin batera joanez, eta gure hizkuntza aukeratzeko askatasuna bermatuz. Areago, euskararen egoerak eskatzen du erakundeak aurreratuago joatea, proaktibo eta eragile izatea.

Hemeretzi sail ditu Donostiako Udalak eta horietatik hamahirutan lanpostu ia guztietan (% 75 baino gehiago) derriortasun-data ezarrita dago. Areago, udal langileen %72 euskaraz gaituta dago bere lanposturako. Egoera horretan 86/97 dekretuak ahalbidetzen du

Hogei urteotan, euskararen ezagutza handitu egin da Donostian. Gainera, erakundeetan ere euskaraz gaituta dauden langileak askoz gehiago dira. Gauzak horrela, udalak eredu izan behar du

sailak euskarazko atal izendatzea, euskaraz hutsez jarduteko aukera izan dezaten. Jakina, horretarako, hizkuntza gaitasunaren baldintzaz gain, arduradun politikoak erabaki hori hartzea behar da. Bada, aurreko agintaldiaren amaieran, 2018-2022 plangintza onartu zuen Udalak, eta lehendik zeuden euskarazko lau sailei beste bat besterik ez zien gehitu Eneko Goiaren gobernuak. Areago, agintaldi berriko lehen erabakien artean euskaraz mintzatzeko gai ez den arduradun politikoa aukeratu zuen euskarazko gisa izendatutako sail horretarako. Zo-

rionez, egoera birbideratzea lortu da, LAB sindikatuaren salaketari esker.

Aurrekoaz gain, ez dira seinale batere onak agintaldi hasieran udal gobernu berriak hartu dituen zenbait erabaki. Batetik, udan 95 udaltzain eta mugikortasuneko agente kontratuko ditu, baina, salbuespen gisa, onartu egingo ditu eskatutako hizkuntza gaitasuna ez duten agenteak ere, euskaraz gai diren lan-poltsako hautagaiak baino zabalagoak omen direlako langile beharrak. Hori aski ez eta bere arauak ezartzea ahaztu zaio, bere bi jardueratan gaztelania hutsezko hizkuntza paisaia erabili baitu (toldozainen izendapena eta udako ikuskizunetarako etxolak). Era berean, ekimen pribatu batek erdaretan bakarrik errotulaturako panelez josi ditu udal farolak berriro ere, eta, dakigula, udalak ez du deus ere egin hori saihesteko.

Donostiako Udalak erakutsi beharko luke arauak ezartzeko eta euskararen normalizazioaren abiaduran bizkortzeko beste kimen bat. Pentsatu nahi dut aukera egongo dela 2018-2022 plan horri moldaketaren bat sartzeko, abian delarik ere, XX. mendekoa baino XXI. mendekoa izan dadin. ●

 **ARGIA**

ZURE JENDEA
HEDABIDEAK
IRAGARKIA



Jarri zure
publizitatea
hemen!

publiz@argia.eus
943 37 15 45
argia.eus/tarifak

GLOVOREN ALTERNATIBAK (ETA IV)

Autonomo aritzearen ordeztzer?

Lau atalez osatutako saileko laugarren eta azken artikulua da hau. Bertan, aztergai da Glovoren negozio-eredua, baita bere ingurukoekin daukan harremana ere.

Glovoko langile “autonomoen” legezko egoera zein den ikertuko dugu oraingoan. Halaber, egungo eta balizko negozio-eredu alternatiben bila arituko gara.

EGILEA | PAUL IANO

ITZULTZAILEA | DIEGO PALLÉS LAPUENTE

Artikulu sorta honen helburua Glovok horrela jokatzeko posible egiten duen ingurunea nolakoa den ulertaraztea da. Enpresa horren jardunak ez du parekorik izan Euskal Herrian eta horregatik haren negozio-eredua arretaz aztertu behar dugu ekonomian eta gizarte-egituran daukan eta edukiko duen eragina neurtzeko. Argi dago, Glovo legeak eta ekonomiak dituzten hutsunez baliatu da kontrolpean duen ekosistema eraikitzeko, baina aldi berean, *rider*-ekin, jabetxeekin eta aplikazioaren erabiltzaileekin harreman estuegirik ez duenaren irudia erakutsi behar du. Enpresa baten ohiko kostuak kanpora ateraz, hainbat herrialdetako ekonomietan prekaritatea eta negozio-eredu monopolista garatu ditu. Azken artikulua honetan, *rider*-en legezko egoera gainetik aztertu eta esplotazio-molde berri honetatik gure burua nola babes dezakegun hausnartuko dugu.

KONTRATUAK ETA BOTERE-HARREMANAK

Glovoren Gasteizko egoitzan “formakuntza” jasotzen ari nintzela, hiru hilabetez *rider* modura lan

egiten hasi aurretik, elkarrizketatzaileak zera esan zuen: “Arduraduna naizue, ez nagusia. Ez da gauza bera”. Alegia, ez nintzen enplegatua izango. Glovoren arabera, *rider*-ek lanordua hautatzeko ahalmena daukate, haien “mikro-lanak” nahieran kudea ditzakete eta, gehienbat, ez daude enpresaren kontrolpean.

Horri erantzuteko, Glovoren tzat *rider* ibili nintzeneko esperientzia eta duela gutxi Bartzelonan Deliveroo enpresaren aurkako epaiak oinarri hartuta, Glovoko *rider*-ak enplegatu hartzeko arrazoi nagusien zerrenda laburra osa dezakegu:

- Espainiako Estatuko aurrekari judizialek argi adierazi dute: enpresak lana kudeatzen badu, orduan langileek enplegu-harremana dute enpresarekin, lan-ordutegia aldaratzea edo aurretik erabaki ezinezkoa izanda ere.
- Aukera batzuk langileen esku daude –adibidez, langileek onartu ala ukatu dezakete enpresak eskainitako lan-ordutegia, edo iristen zaizkien eskararak–, baina ezetz esanez gero, enpresak berehala zigortzen



DOS POR DOS / KAULDI IRONDO



PACO FREIRE

GLOVOKO BANATZAILE BAT HIL ZEN MAIATZEAN BARTZELONAN AUTO BATEK HARRAPATUTA. EHUN LANKIDE INGURU ELKARTU ZIREN ENPRESAREN EGOITZAREN AURREAN MOTXILEI SU EMAN ETA PROTESTA EGITEKO.

ditu. Edozein enplegutik bezala, alegia. Duela gutxi, Bartzelonan izandako epaiketa batean, Deliveroo deitutako lekuko batek “ez” erantzun zuen langileek eskaerei uko egin diezaieketen ala ez galdetu ziotenean. Enpresaren ordezkariak “zur eta lur geratu ziren beren negozio-eredua defendatzeko asmoz beraiek deitutako lekukoaren adierazpenarekin”. Menpekotasuna eta boterea dira enplegatzaile eta enplegatu baten arteko harremanaren ezaugarri nagusiak, eta ez harremana

gauzatzeko erabili den era.

- Beste gauza batzuk, ordea, ez daude langileen esku. *Rider*-ek hainbat gauza egin behar dituzte derrigorrez: Glovoko motxila horia erosi, aplikazioa erabili, beren lokalizazioa etengabe partekatu, zerbitzu-eremuaren barruan fisikoki egon eta lanaldia hasi baino hamar minutu lehenago fitxatu, besteak beste. Bi aste behin “plataforma erabiltzeagatik” ordaindu egin behar dute eta, batez ere, ezin dute haien lanaren truke jasoko duten ordaina negoziatu. Argi

eta garbi, hori ez da “mikronegozio independente” baten adibidea.

Langile autonomoa den edonork gai izan behar luke bere kabuz eta bere espezialitatean lana topatzeko. Nire lagun batek herriko negozio txikien sare sozialak kudeatzen ditu eta bezeroak lortzeko haien dendetan bertan eskaintzen dizkie bere zerbitzuak. Aldiz, jate-txe batean motxila eta bizikletaz hornituta sartu eta jabeari janaria banatzea eskainiko banio, etxera esku-hutsik aise itzuliko nintzateke. Izan ere, gauza



hori bera egiten saiatu nintzen, emaitza ikusteko baino ez, eta erabateko porrota izan zen. Glovok sortutako aplikazioa eta sistema ezinbestekoak dira lan horretan aritzeko.

Ez du axola zein lege-hutsune edo bide aurkituko dituen Glovok etorkizunean bere jarduna aurrera eramateko, horrek ez du arinduko langileei ezarri dien kontrol hertsagarria. Azken finean, Glovok erabateko kontrola behar du bezeroei zerbitzuaren kalitatea bermatzeko eta *riders*-ak bere esanetara jokatzeko

konbentzitu behar ditu ahalik eta modu gogor eta legezkoenean.

NOLA IRITSI GARA HONAINO?

Ondo ulertu behar dugu egoera hau ez dela berria. Estatubatuarra izanda, asko harritu nintzen Espainiako Estatuan banatzaile gehienak langile autonomoak zirela jakin nuenean.

Hamarkada batzuk lehenago, mezu-larritza benetako autonomoek osatutako industria omen zen. Zenbait langilek azaldu didate duela asko edonor aritu zitekeela pakete txikiak garraiatzen, furgoneta bat izanez gero. Industria hori langile independente talde batek osatzen zuen eta bakoitza bere kontaktu pertsonal eta profesional baliatzen zen bezeroak lortzeko. Prezioak negoziatu eta ibilbideak ere haiek erabakitzen zituzten.

70eko hamarkadan hasita eta batez ere 80koan, langile independente horiek “autonomo” gisa lanean hasi ziren nazioarteko enpresa handientzat. Behin presako posta-bidalketak egiteko balio izan zuen zerbitzua egungo nazioarteko industria logistiko bihurtzen hasia zen, internet bidezko erosketa eta azpikontratazioen epeletan. Tokian tokiko sare plural eta independentea desagertu eta enpresa erraldoiek —DHL, UPS— oligopolioa sendotu zuten.

Egin dudak ikerketaren arabera, garaietan, ez zen langileen eskubideen aldeko borrokarik garatu industria horretan. Beharbada horren ondorioz jo du txarrera langileen egoerak azken hamarkadetan: elkarrizketatu ditudan banatzaile guztiek —gaur egun haietako askok lana utzi dute eta Glovoko *riders* ari dira— kontatu didate hamasei orduko lanaldiak ez direla ezohikoak, ibilgailuak birrindu arte lan egin dutela sarri, eta trukean izugarritzko estres fisiko eta emozionala eta soldata eskasa baino ez dutela jasotzen. Industria horretan, langileek botererik ez dute eta enpresa zaharrek oligopolioa ondo finkatuta daukate. Plataformetan oinarritutako enpresa teknologiko berriak sustraitzeko eremu apartekoa zen. Inor ez zegoen adi, ezta borrokarako prest ere.

Horixe da Glovoren bilakaeratik atera beharreko irakaspen nagusietako bat. Unibertsitateko irakasleentzako edo autogintzako plataformarik ez badago, ez da kasualitatez, ez da horrelakoak garatzea ezinezkoa delako. Izan ere, AEBetan bi plataforma mota horiek abian jartzen ari dira dagoeneko.

Hemen, oraindik ez dago horrelakorik industria horietako langileek boterea dutelako: sindikatueta antolatuta daude eta tratatu duina exijitzen dute.

Glovo fenomenoak argi erakutsi digu putreek erraz xurgatu ahal dituztela industria ahulak, arrisku-kapitalaz eta itxura ederreko aplikazio batez baliatuta. Banaketa-industria koarentenan jarri behar dugu elgorri-agerraldi bat balitz bezala, ekonomiaren gainerako esparruak txertatu ahal izateko bitartean. Txertatze hori ez da gauza samurra izango. Betiko urrats nekagarri bezain garrantzizkoak errepikatu beharko dira: botere kolektiboa antolatu, mehatxu berriari buruzko informazioa zabaldu eta konpainia hauek auzitara eraman. Esplotazio-eredu hori bazter guztietara ez hedatzeko modu bakarra horixe baino ez dugu.

**Glovok erabateko kontrola
behar du kalitatea
bermatzeko eta *riders*-ak
bere esanetara jokatzeko
konbentzitu behar ditu
ahalik eta modu gogor eta
legezkoenean**



ALTERNATIBAK: TRADIZIONALISTAK, ETORRI BERRI HANDIUSTEAK ETA IDEALISTAK

Dena den, bitartean jaten jarraitu beharko dugu; langile-borrokak jendea gose-tu ohi du. Gauzak horrela, janaria banatzeko zein enpresa hauta dezakegu? Hasteko, bertako familia-jatetxe batzuek beren banaketa-zerbitzuak dituzte. Printzipioz, aukera horrek janaria eskuratzeko bide egokia dirudi guztiz. Banatzailearentzat lanaldi partzialeko lan aukera da, eta, are garrantzitsuago, horrelako lan-giroetan egoten diren gardentasunak eta gertuko harremanek esplotazio-egoerak garatzea eragozten dute.

Bigarrenik, Telepizza eta Burger King bezalako frankiziak daude. Beren banatzaileei ahalik eta soldata murritzena eskaintzen diete, baina gutxienez kontratatutako egiten dituzte; hortaz, lanorduak mugatuta daude eta lanpostuak eskain-



RIDERS X DERECHOS SORTU ZUTEN BANATZAILE OHI BATZUEK.

tzen dituen aukerei lotutako iruzurrik ez dago, Glovorenkin ez bezala.

Horiez gain, Glovoren negozio-ereduari aurre egiteko sortu diren hiru aukera berriak daude: “Uber urardotuak” izendatu ditudan horiek, kooperatibak eta alternatiba teknologikoak. Azken horiek, alternatiba teknologikoak, AEBetako BlockFood moduko enpresak dira: *startup* teknologiko txikiak, duela urte batzuetako Glovoren antzekoak. Plataforma teknologiko hierarkikoen arazoak konponduko dituztela esan eta, prozesuan, arazo berriak sortzen dituzte, baina betiere *blockchain* edo modako beste tresnaren bat erabiliz. Glovoren printzipio beretan oinarritzen dira eta zer bait lortzekotan, langileak era efizienteagoan esplotatzea lortuko dute.

“Uber urardotuak” Uber berri bat izaten saiatzen diren enpresak dira, baina, Uberren kasuan ez bezala, beren negozio-helburu nagusia ez da nazioarteko super-gaizkile doilor bihurtzea. Enpresa horiek negozio-eredu apur bat hobea eskaintzen dute benetako plataforma baten modura funtzionatzen baitute, bi-

garren eskuko gauzak erosi edo saltzeko Wallapop enpresaren antzera. Zerbitzua eskaini eta erosten dutenen artean pre-

**Presako posta-bidalketak
egiteko balio izan zuen
zerbitzua nazioarteko
industria logistiko
bihurtzen hasia zen, tokian
tokiko sare plural eta
independentea desagertu
eta enpresa erraldoiek
oligopolioa sendotu zuten**



zioak adosteko aukera egoten da. Oro har, horrelako enpresek hain kaltegarriak ez badirudite ere, esplotazio alde-

tik, Glovo edo Uberri aurre egiteko ahalmen mugatua dute. Benetako arrakasta izango balute, ziur aski ordezkatu nahi duten hori bilakatzeko beharra izango lukete prozesuko uneren batean.

Azkenik, European batez ere, kooperatiba horizontalak sortzeko saiakerak egon dira, Glovoren antzeko zerbitzuak eskaintzeko asmoz, baina esplotazio eta hierarkiarik gabe. Espainiako Estatuan horrelako bi sortu dira: Mensakas Bartzelonan eta La Pájara Madrilan. Frantziako Estatuan sortu den CoopCyclek banaketak kudeatzeko kode irekiko programa bat garatu du eta, oraingoz, horretaz baliatzen dira janaria bizikleta bidez banatzeko. Laster, ordea, Glovoren zerbitzu berdina eskainiko dituen aplikazio berri bat sortuko omen dute. Oraingoz, zerbitzuok lehiakorrak dira prezioaren aldetik eta hala mantenduko dira gutxieneko bezero kopuru bat lortzen jarraitzen duten artean, baldin eta langileek enpresa horizontalki kontrolatzeari uzten ez badiote. Langileak konpainiaren jabeakideak dira eta kontratuak dauzkate.



Denborak esango du ea kooperatiba horiek gai izango ote diren Glovoren eta Deliverooren aurka borrokatzeko haien eremuan. Kooperatiba askorekin bezala, eskuragarri duten aukerarik onena kontzientzia soziala duten kontsumitzaileentzako zerbitzu nagusi bilakatzeari delakoan nago. Baina agian teknologiaren aukeren adierazgarri bihurtu daitezke eta egungo erraldoi teknologikoen maila berean jarri. Horrelakorik nonbait gertatuko bada, litekeena da hemen Euskal Herrian gertatzea, eredu kooperatiboak eta langile-eskubideek historia luzea izateaz gain, herritarren begirunea ere badute eta.

Amaitu baino lehen, Riders X Derechos izeneko sarea eta Online sindikatua ahaleginetan ari da Glovo eta Deliveroo auzitara eramateko autonomo faltsuen egoera dela eta. Arrakasta izan dute azken hilabeteetan eta, horren ondorioz, Deliveroo berriz kontratatatu behar izan ditu sindikatzeagatik kaleratu zituen *rider* guztiak. Gainera, aurrenekoz kontratuak egin behar izan dizkie. Badirudi Glovoren aurkako sa-

laketek antzeko emaitzak izango dituztela eta, beharbada, enpresa horrek ere kontratuak egin beharko dizkie bere langileei.

Batzuen ustez, borroka honen helburua hauxe da: teknologia berriak erabiltzea benetako lanpostuak sortzeko. Ziur aski, ordea, Glovok eta Deliverook enpleguak esplotatzeko era bat topatuko dute, autonomoekin egin duten bezala. Azken finean, *rider*-ei kontratuak egitera behartuta egonez gero, gizarte-segurantza, zergak eta bestelakoak ordaindu beharko litzieke, besterik ez. Edo, agian, negozioa ixtea erabakiko lukete eta langile guztiak kaleratu. Zaila da esatea horietako zein aukerak egingo liokeen mesede handiagoa bai gizarteari, baita ekonomiari ere.

EDO BESTELA...

Gutxitan gogoan hartzen dugun azken aukera bat ere badago: janaria eskatzeari utz geniezaioke. Etxetik kanpo jatera joan gintezke eta lagunekin eta senideekin denbora eman, gizartearen parte izan eta hainbeste maite baina

alternatiba merkeago bat agertu bezain laster erraz abandonatzen ditugun bertako negozioei ekonomikoki lagun geniezaioke. Ez legoke sobera honako galdera hauek planteatzea: Beharrezkoa al da banaketa-lanak existitzea? Benetan hobetzen digute bizitza ala AEBetako jatetxe bateko jabeak esan zuen moduan, mendekotasuna sortuz bizitza hits bihurtuko digun droga baino ez dira?

**Plataformetan
oinarritutako enpresa
teknologiko berriak
sustraitzeko eremu
apartekoa zen; inor
ez zegoen adi, ezta
borrokarako prest ere**



On-demand zerbitzuek elkarrengandik isolatzen gaituzte, gizartearen ahalmen ekonomikoa murrizten dute eta osasungaitzak diren portaerak sustatzen dituzte. Zenbait ikerketaren arabera, droga gogorrek eta kontsumo-praktikek antzeko eragina izaten dute burmuinean. Gutxienez, zerbitzu horiek bizi-kalitatea hobetzen ote diguten ala ez galdetzea daukagu. Kontsumitzaileei gero eta erantzukizun gehiago eskatzearen aurka banago ere, txarto ere ez dago gogoratzea batzuetan gutxiagorekin bizitzea hobeto bizitzea izan daitekeela.

Hemen aipatutako kontuek ez dute erantzun errazik eta gaiari buruz zenbat eta gehiago jakin, orduan eta gogo gutxiago izaten dut konponbideak eskaintzeko. Hala ere, irrikan nago langileek mehatxu berriei aurre egiteko eta ahalduzko garatuko dituzten era berriak ikusteko. Esan dezakedan gauza bakarra zera da: berdin du zein irtenbide hautatzen dugun, elkarlanean eraikitakoa izan behar da. Kanean gure aurretik igarotzen diren hori koloreko motxilei ez ikusiarena egiteari utzi behar diegu, baita motxilak garraiatzen dituzten *rider*-ei ere. Gure inguruan gertatzen ari den horri buru egin eta erantzuna eman behar diogu. ●

EUSKAL HEDABIDEAK BERRIZ LILURATUZ



ARGIAren mendeurrena dela eta artikulua eskatu zidaten Eusko Ikaskuntzaren *Euskonews* agerkarirako. Han joan den astean argitaratu zen eta orain hemen. Komunikabide batek oso gutxitan egiten ditu ehun urte eta gustura ari gara iraganera begira, euskal kazetaritzaren memoria elikatzen. Ondorengo lerroetan, ostera, batez ere aurrera begiratzen da, kazetarien lehengai diren edukiak ardatz hartuta. Euskal hedabideak eta lizentzia libreei buruzko hausnarketa duzu ondorengoa.

 XABIER LETONA

Pasatu dira 31 urte Bilboko Alde Zaharreko taberna batean 1988ko hasieran *Argia*-ko lehen bilerara joan nintzenetik. Oker ez banago Iñaki Uria etorri zen Donostiako erredakziotik. Bilbon kazetaritza ikasten ari ginen talde ederra hasi ginen orduan *ARGIA*-n kolaboratzen. Nork esango zidan hiru hamarkadaren bueltan aldizkariak bere mendeurrena ospatzeko sasoian hor jarraituko nuela lanean. 2001eko udazkenean *ARGIA*-ko zuzendari izendatu nindutenean horixe zen nire obsesio handienetakoa: “Eta 1919an abiatutako hau nirekin hondoratzen bada?”. Jakina, pentsamenduok bazuten sustrairik hainbatetan bizi izandako une larrietan. Desagertu? Bai zera, egunkari baten ernamuin izan zen garaia salbuespen, nik ezagutu dudana sasoia indartsuenean heldu da aldizkaria bere mendeurrenara.

Denbora honetan guztian astekari honek euskal hedabideak jarraitzeko taldea proposa eman dit eta hortik bikain ikusten da hedabideok eman dugun jauzi

itzela. Aurrerapauso hori nekez uler liteke 80ko hamarkadan argiero-ek egin dako lana kontuan hartu barik, funtsean XX. mende hasieratik datozen kate begiak aintzat hartu barik: 1919an Iruñeko Arrotxapeko komentu batean bi kaputxinok sortutako *Zeruko Argia* aldizkari erlijiosoa; 1921ean Donostian hasitako *ARGIA* astekaria; kaputxinoen babesean euskal kazetaritzaren zutoinak jarri zituen 60ko hamarkadako talde hura; edo 70eko hamarkadako *Zeruko Argia*-ko erredakzio berritzaile eta errebeldea.

MEMORIA ERE BAGARA


Etorkizuneko oinarrietan memoria ezin bestekoa da, edozein arlotan, beraz hobe geuk egitea gurea, beste norbaitek egitea baino. Eta *Zeruko Argia* eta *ARGIA* bizkarrezurra dira euskal prentsaren memorian. Aurten memoria hori osatzen eta barreiatzen ari gara buru-belarri *ARGIA*-ko lan talde osoa.

Baina iraganaren garrantziaren jakitun izanda ere, gu orainak eta etorkizunak bizi gaituzte: *Euskaldunon Egunka-*

ria, internet, multimedia, sare sozialak, informazio burujabetza, Hekimen, borondatezko salneurrian oinarritutako harpidetza, lizentzia librea... Unean uneko esparru horietan guztietan jarri dugun gure ale esanguratsuak argi adierazten du hori.

Euskal hedabideon errealitate konplexuaren jakitun, non ginen eta non gauden! Geure buruari aitortza hori egiten ez badiogu, nork egingo dio bada? Tira, zer ez dudana entzun urte hauetan guztietan euskal hedabideen kalitate txarraz, kontsumitzaileak erakartzeko gure ahalmen eskasaz edota gure etorkizun ilunaz –“lau aldizkari geratzen zaizkizue”–; akuilu izateko baino, denak gure konplexuak gizentzera bideratuak, batzuetan borondate onez eta askotan gaiztoenaz.

Baina murgildu ginen postmodernitatean, internet agertu zen, baita 2007ko krisitzarra ere... eta erdal hedabideetan ere txakurrak ortozik. Baita gu baino herrenago ere hainbatetan. Gure memorian, egia handienetakoa zera da: euskarari hitzuna nola, Damaso Intzari,



Agustin Ezeizari, Amatiño eta Atxagari, Elixabete Garmendiari, argieroei, geuri... beti irakurleak falta izan zaizkigula. ETB-ri ikusleak bezala. Edo euskal literaturari irakurleak bezala. Hizkuntza minorizatu baten gainean eraiki dugu etxea, ez du beste misteriorik. Eta horretan gaude, olatu gainean goazenean duin; eta azpian gaudenean itolarrian.

LIZENTZIA LIBREA, KOMUNITATEA, ETORKIZUNA

Ez zuen inongo berrikuntzarik, baina joan den hamarkadako enpresa kudeaketaren literatura eraginkor eta interesatu hura komunitatearen kontzeptua hasi zen erabiltzen indarrez: hedabidea eta bere komunitatea. Ez zioen gezurrik, baina ez zuen ezer deskubritu, mundua mundu denetik humanoen garapena batez ere komunitatearen indarrean oinarritu da, naturaren bilakaera sinbiosian lehian baino gehiago egiten den moduan. Kapitalismoa etorri zen arte, honen ondorio nagusia beti izan baita komunitatea eta bere ingurumen

naturala suntsitzea, klima aldaketarekin gero eta argiago ikusten den gisan, sistema honek bere baitan duelako suntsipenaren harra. Azken esaldia hobeto ulertzeko gomendatuko nuke irakurtzea Karl Polanyi-ren *Transformazio handia* liburu bikaina.

Baina utz dezagun istorio hori eta zentra gaitezen euskal hedabideen komunitate zabalean. Artikuluhonon titulua irakurri eta irribarre egin duenak, badaki ez dela batera originala eta Silvia Federici feminista ezagunaren azken liburuan oinarritzen dela: *Mundua berriz liluratuz. Feminismoa eta komuneko politika* (Katakarak 2019). Berriz ere, euskarak baduelako zer jaso mugimendu feministaren pentsamendutik. Funtsean, eta feminismoa eta emakumea oinarri hartzen baditu ere, Federicik dios-

ku komuneko politikan oinarrituta eraiki dezakegula mundu berria. Hor ere ez dago berrikuntzarik, bagenekien, baina ezkerreko emakume honek, munduko komuneko gaineko informazio ugari eskaintzeaz gain, gaiaz pentsatzen jartzen gaitu, berriz liluratzearaino.

KOMUNITATE GARA



Euskal hedabideen arteko informazioa partekatzeak gure euskal agenda informatiboa indartzen du. Gutxi hitz egiten dugu agenda hortaz eta kezkarria da hori

Hedabide bakoitzak du bere komunitatea, behin eta berriaz errepikatzen diegu gure hartzaileei: “Gure komunitatea”. Hori oso barneratua dugu. Baina, hemen jorratuko ez ditudan hamaika arrazoi tartean, euskarazko hedabideok ere komunitate bat osatzen dugula, hori ez dugu batera garatua eta sustraitua. Eta egia da, komunitate oso ahula gara, baina nahi beste indartu dezakegu, eta bakoitzaren ahulezia denon indar bilakatu. Zorionez,

ETA EUSKAL HEDABIDEETAN ZER?

Lan handia egin ondoren, bere artiku-
luak ahalik eta gehien zabaltzea gura
dute kazetariak eta komunikabideak.
Hori lortzeko hainbat modu daude, baina
egungo munduan albiste agentziak dira
zabalkundearen paradigma eta gutxi ba-
tzuren artean kontrolatzen dituzte mun-
duko informazio fluxuak. Haiek sortutako
informazioa zabaltzeagatik ordaindu egi-
ten dugu. Beste muturrean da informa-
zioa libre elkar trukatzeara.

Errealitate horren aurrean zer egiten
dugu euskal hedabideok? Gure infor-
mazioa gero eta gehiago partekatzen
badugu ere, oraindik, oro har, bestearen
oso eduki gutxi zabaltzen dugu lizentzia
libre bidez. Ez gara ausartzen, horrek
gure marka baino besteena indartzen
duela sinetsita. Beste hainbat arrazoi
egon litezke, baina ez dugu asko parte-
katzen. Eta eduki libreetatik harago ere,
gure arteko eduki esanguratsuei erre-
ferentzia egiteko joera urria da oro har,
baina hori hurrengorako utziko dugu.

HASTAPENEAN GAUDE

ARGIA-k 2012an jarri zituen bere edu-
kiak CC by-sa lizentzia librearekin
eta *Sustatu*-k horixe bera egin zuen
2009an. Akaso beste batzuek lehen-
gotik ere izango zuten, baina hemen
ez da horren azterketa zehatzik egin.
Gaur egun, euskal hedabideetako as-

kok dute lizentzia hori, besteak beste,
azken urteetan Eusko Jaurlaritzako di-
ru-laguntza deialdietan hala egitea sa-
ritu delako. Euskal Herriko erdal medio
gehienek ez dute halako lizentziarik
erabiltzen eta copyright-arekin jarrai-
tzen dute. Salbuespenen artean dira
Pikara aldizkari feminista edo *Horda-
go-El Salto*.

Duela zazpi urte ARGIA-n ere ez ge-
nuen besteen eduki asko erabiltzen.
Apurka, ordea, gero eta gehiagora joan
da, gaur egun lizentzia libre gehien
partekatzen duen hedabidea bihurtu
arte. *Hala Bedi*, *Euskalerrria Irratia*, *Aia-
raldea*, *Ahotsa*, *Noaia*, *Topatu*... eta bes-
te batzuen eduki ugari partekatzen hasi
ginen. Bide horretan izan dugu ezus-
tekorik, CC by-sa lizentzia izan arren,
haien edukiak hartzea gustuko ez du-
tela adierazi diguten hedabideak ere
badira eta, areago, "hartuko ez baze-

Hekimen (Herri ekimeneko euskal ko-
munikabideen elkarte) eratu zenetik
horretan ari gara, poliki, jakin gabe ondo
nola, beldurrez, aldaketarekiko erresis-
tentsia lagun, baina bagabiltza.

Hekimenen lorpen handietako bat
izan da aurrean diru-laguntzetan eman-
dako jauzi esanguratsua, eta horren on-
dorioz gure hedabideetako langileek
hobekuntzak izango dituzte lan baldin-
tzetan. Oxigeno apur bat. Baina ez gaite-
zen engaina, diru apur batez gain, gure
sektoreak batez ere onarpena behar du
instituzioetatik, urtea joan urtea etorri
eskale gisa ez ibili beharra, diruz lagun-
duaren estigma gaineratik kentzea eta gure
lana behar den neurrian baloratzea eta
babestea.

Pentsatzen dut beste hamaika gai jo-
rra ditzakeela Hekimenek aurrera be-
gira: kazetaritzaren egoera orokorra,
publizitate instituzionala, kazetaritza
ikerketak, I + G, kazetaritza eta demokra-
zia, hain gutxi hain eskas zaindu ditugun
komunitateko kazetarion arteko harre-
manak... eta uste dut horien artean egon
beharko lukeela baita ere gure lehengaia
dena: edukia. Hor baitaukagu jauzi han-
di bat emateko aukera, beti ere komu-

nitate gisa jokatzuz eta berau indartzeko
asmoa oinarri.

CC BY-SA, ALTXOR UNIBERTSALA

Hekimenen sorrera prozesuan, 2011-
2012aren bueltan, Mikel Irizarrek
bere igogailuen adibidearekin infor-
mazioa gora eta behera tokikotik
nazioalera eta alderantziz
mugitu beharra adieraz-
ten zuenean ez nuen
ulertzen ongi hori nola
egin zitekeen. Orain
sinpleago ikusten
dut, orduan ere lizen-
tzia libreak eskueran
genituen, besteak
beste CC by-sa lizen-
tzia ezaguna, baina
oro har gutxi erabiltzen
genuen. ARGIA-n aspaldi
erabiltzen dugu lizentzia hori
eta gero eta garbiago ikusten dugu
informazioa partekatzearen poten-
tzialitatea. Libre da, nahi bada egiten
da, bestela ez; partekatzea doakoa,
edo ia doakoa da -pertsonaren lana
dago eta-; nahieran eta samur egin
liteke, ez du kontsentsu mitikoa es-

katzen, ezta adostasun handirik, egi-
learen marka indartzen du eta edukiei
zabalkunde handiagoa ematen die.
Jaso besteen edukiak libre, aitortu no-
rena den eta zabaldu lizentzia beraren
menpe. Informazioa atzera aurrera
eta eskuin ezker mugitzeko giltzetako

bat da, denon eskueran, sal-eros-
ketaren logikatik at, eta izu-
garri eraginkorra. Dena
abantaila bada, zerga-
tik ez dugu gehiago
praktikatzen? Hala-
beharrez edo kon-
tzentzia ezaz urte
luzez bakoitza bere
zilborrera begira
egon izanak izango
du errurik seguruena;
edo akaso, gaizki uler-
tutako konpetentzia batek
ere bai.

Bizi dugun aro digitalaren atza-
parrak gero eta ARGIAgo ikusten ditugu,
ez gaitu pentsatu genuen bezain libre
egiten, aitzitik, gero eta estuago harra-
patzen gaitu. Baina txanponak badu
ifrentzua ere eta hor mamitzen dira
Wikipedia edo software libre modu-

“
**Gai gara gure izaera
eta nazioaren aurka
diharduten agentzien
edukiak erosteko eta ez
gara gai gure arteko
edukiak libre
partekatzeko?**

nute hobeto" esaten dutenak. Hori, duten lizentzia ez ulertzea dela adierazi izan diegu hainbati, badutela lizentzien artean aukerarik beraiei eroso zaiena hautatzeko, baina ez desitxuratzeko lizentzia librea, horrek lizentzia librean aritu nahi dugunon eskubidea urratzen duelako".

Gaur gaurkoz, badira bi joera nagusi euskal hedabideetan. Argudioak asko laburbilduta honakoak dira: batzuen ustez, edukiak libre partekatu behar dira, edukiak osorik, ahalik eta gehien hobeto, horrek indartu egiten gaituelako, bai euskal hedabideok oro har, baita hedabide bakoitza ere. Besteen ustez, medio handiago batek txikiaren edukia hartzen badu, honen zabalkundea mugatzen du, besteak beste, sareko posizionamendu kontuengatik edo handiak itzal handiagoa duelako; horregatik, eskatzen da edukiaren hasiera

hartzea, baina gero irakurtzen jarraitu nahi izatekotan edukia landu duen hedabidera bideratzea. Gaiaz hitz egin da hainbat hedabideren artean, eta gaur gaurkoz jarrerak bere horretan geratu dira.

TEKNOLOGIA ETA INFORMAZIO BURUJABETZA

Teknologia berrien eta softwarearen munduan ohituago daude libre partekatzea aldarrikatze- ra, baina garapen horietako asko edukietan oinarritzen dira, Mozilla-ren Common Voice proiektu ezaguna bera adibidez, euskaraz Librezelek bideratzen duena: ARGIA-k espresuki proiektu honetarako jabetza

publikoan utzitako testuetatik ateratako 3.900 esaldirekin osatu da esaldi bildumaren zati handi bat. Esaldiekin egindako grabazioak dira ahotsaren ezagutzara-

ko motorra entrenatzeko erabiliko direnak.

"Euskaldunok teknologia hauek nahi baditugu, guk geuk, modu librean eta auzolanean sortu behar ditugu", zioen Librezeleko Marko Txopiteak iazko Euskarabildua jardunaldietan. Norabide berean, gaur egun eduki libreen partekatzea euskal he-

rriarron informazio burujabetzaren bidean egin litekeen ekarpen esanguratsuenetakoa da. ●

Euskal hedabideek gure informazioa gero eta gehiago partekatzen badugu ere, oraindik, oro har, bestearen oso eduki gutxi zabaltzen dugu lizentzia libre bidez

EUSKAL HEDABIDEAK

HAINBAT MOLDETAN BADA ERE, EUSKAL HEDABIDEEN ARTEAN GERO ETA EDUKI GEHIAGO PARTEKATZEN DIRA LIZENTZIA LIBREAN, BEREZIKI SAREAN.

beraz, egiaztatu erabiltzailearen datuak erabiltzeko, lizentziatzen.

- ZuZeu bere erredakzio taldeak zuzenki sortutako edukien erantzule baizik ez da.
- Erabiltzaileak, inplizitoki, argitarapen baimenik gabeko materialik ez duela bidaliko/zerbatuko onartzen du ZuZeu-ri haren materiala aurrerabazteko baimena emateko. Zentzu honetan hurbilegi bategi, erabiltzailearen beraren litzetako erantzukizuna eta ez inola ere, ZuZeu-rena.
- Baldin eta bategi, ZuZeu-ko editoreek baimenik gabeko material oro ozabatuko lukete, horretaz konturatu bizain azkar. Halaber, zure esku gertatzen da sarriak edertzea, hornitzea, egiaztatzea eta bertan egon daitezkeen okerrak zuzentzea.

Egile eskubideei buruzkoa
ZuZeu albidarian sortutako sarrera guztiak, Creative Commons lizentziakapekoak dira.

Honek esan nahi du banatu, kopiatu eta zabaltu zure ZuZeu-ri edukia guztiak, betiere **bi baldintza** onartzen badira: egilea eta jatorria aitortu, eta zabaltzearen lizentzia berdinarekin egilea.

Onarpena
Ulertu behar da, erabiltzaileek baldintza guztiak eta bakoitza onartzen dituela aurretik. Honek izan ezan, ZuZeu ez erabiltzea eskatzen zaio.

Lege-oharra eta Cookien Politika

"Ez dut ikurrinaren aurkako jazarpenik egingo Txupinazoan, segurtasun kontuak dira"

Argia 2019-07-03 00:00

Enrique Maya Iruñeko alkateak Txupinazoan bandera handiak egingo direla Udaletxeko Plazara sartu adierazi du *Diario de Noticias de Navarra* eskaintako elkarrizketan. Jende aglomerazio handiko ekitaldietan bandera handiak arriskutsuak direla esan du, eta tamaina normaleko ikurrinak sartu ahaliko direla baieztatu du.

OSORIK IRAKURRI

rama akordioa aurkeztu di
a Bai, Ahal Duguri eta Ez

urrerakoia osatu nahian bilera egin zuten lau indarrek. Datozen lau u mahai gainean jarri die alderdi sozialistak gainerakoei.

ARRIA IRRATIA @fm983irratia 2019ko ekainaren 25a

Albeste hau **EuskaLerri irratia** argitaratu du eta Creative Commons BY-SA 3.0 lizentziari esker ekarri dugu.

ALEA

ARGIA

Kazetariak bertatik bertara ezagutu zuten Euskal Herria bidaiari horretan, eta labanar idatzita urri zuten bere lehen klasifikazioa. Belgikako Leopoldo II.a enperadorearen eraberritzea Kongoko herriarrek odolusteko erabiltzeko zuten gero labana bera, "bide komertzial berriak" aurkitzeko aitzakia.

Urtearen gan bete dira 150 urte Henry Morton Stanley esploratzaile eta kazetariak lehen bidaiari egin zuela Arabara, Euskal Herria gerturatu aurretik. The New York Herald egunkariaren korrespondentea zen eta Kanpuzko kanpuzko kanpuzko berriz ematera etorri zen gurea -hango alkate liberala hil zuten liskarretan-. Bide batez, "euskal probintzien eta bere jendeen" doktrinaren zabalera egin zuten erreportajearen.

Urteurrena hainbat ekitaldiarekin ospatu dute joan den astean. Antolatzaileen artean zuten Vitoria 2019 historia elkarteak, La Exploradora Manuel Iradier elkarte afrikarista eta Gasteizko eta Kanpuzko udalak. Kanpuzko mahai-ingurua egin dute, eta esploratzaileen bizibideak Gasteiz bisitatu du bere arabara ibiliteko tokiaren barrena, udal ordezkariak eta elkarteetako kideen laguntzez. Henry Morton Stanley kale bat du Arabako hiriburuan, Zabalana auzoan.


Erreportaje hau ARGIA aldizkariak argitaratu du eta Creative Commons by-sa lizentziari esker ekarri dugu ALEA. Jatorriko albistearen **hemen dugu ikusgai**.

07/24

an@n
iametza
ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopia, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egilez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuk lizentzia hau ez izatea.

ko altxor kooperatiboak, ezagunenak aipatzeagatik. Lizentzia libreena ere ez da batere berria, euskal hedabideetan gero eta gehiagok gero eta sarriago erabiltzen dugula, hori da berria. Hori modu kontzienteagoan eginez gero, jauzi handia egin liteke.

Berria, *Hitza-k*, *Goiena*, *ARGIA*, *Euskal-lerria*, *Irratia*, *Hamaika*, *Anboto*, *Aiaraldea*, *Alea*, *Ataria*, *Noaua*, *Aiurri*, *Erran*, *Zuzeu...* eta beste hainbat hedabidek dute CC by-sa lizentzia. Erdal hedabideen galaxian ez dago halako eskuza-baltasunik eta kooperaziorako jokararik. Badira horren azalpenak, baina hori ere ez dugu hemen jorratuko. Edonola ere, kontua da guztiok ez dugula berdin erabiltzen lizentzia, ez kopuruz ez izpirituz. Batzuek asko –*ARGIA*-k adibidez– eta beste batzuek oso gutxi. Bakoitza bere amaren alaba den neurrian, bakoitzak jakingo du zergatik. Gainera, aukeraz beteriko mundua bada ere, arantzatsua ere bada.

Kontua da ez dugula ezer berririk sortu behar, medio bakoitzak berak sinesten duena eta ondoen egiten dakienarekin jarraituko du, ez du bakoitzaren negozio lerroa edo izaera aldatzen. Ezin gara beti audientzia, irismen eta gisakoekin korapilatu; horiek garrantzia dute, baina neurrian, eta gainera ez daude bakarrik gure esku. Gure edukiak bai, horiek gehiago kontrola ditzakegu: ahalik eta ondoen ekoiztu, ahalik eta ondoen zabaltzeko. 2009an *ARGIA*-ren 90. urteurrenean Vicent Partal *Vilaweb*-eko zuzendariak Donostian

emandako hitzaldian esan ziguna iltzatu geratu zitzaidan: “Berdin da zein euskarritan eta non, kontua da zure marka ahalik eta leku gehienetan egotea, horrek indartu egiten zaitu”.

GURE AGENDA INFORMATIBOA

Norabide honetan asko indartu dezakegu Euskal Herriko agenda informatiboa, eta badugu premiarik, besteak beste euskal esparru komunikatiboa hutsala delako erdaren esparru komunikatiboen parean. Josu Amezaga EHUKo irakasleak ondo baino hobeto

erakutsi du datu eta mapa lagarriekin, eta behin baino gehiagotan gogorara-

zi digu: “Komunikazio esparru nazionalik gabe, ezin da euskal naziorik eraiki”.

Gai gara gure izaera eta nazioaren aurka diharduten agentzien edukiak erosteko, eta ez gara gai gure arteko edukiak librean

partekatzeke? Nola bihurtuko ditugu albiste batzuk aktualitate ez baditugu denok ematen? Agentziek markatu behar dute aktualitatea, euskarazko hedabide ugari ditudunean?

Azken urte honetan egon naiz euskarazko komunikazioaz hitz egin den bi lekutan bederen, iaz Altsasun hedabide minorizatuari buruzko jardunaldietan eta gero Iruñean Eusko Ikaskuntzaren Kongresuan, baina ez dut halako gaiez tutik ere entzun. Ziklikoki aipatzen da euskal agentziarena, baina gero eta gutxiago eta, egia esan, ez dakit zein neurritan den bideragarria. Baina badakit gure arteko in-

formazioa partekatzeak gure euskal agenda informatiboa indartzen duela. Gutxi hitz egiten dugu agenda informatiboaz eta kezkarria da hori.

ELKARLANETIK, GURE OHIKOTIK

Azken mende erdian ikastoletan, euskalduntze-alfabetatzean edo euskal hedabideetan herri ekimena oinarritzea izan da hainbat proiektu aurrera ateratzeko. Elkarlanean eraiki da euskalgintzaren zatirik handiena. Gizarteko beste esparru batzuetan ere ari gara iratzartzen apurka, eta komunitatea zurrupatzeko baino berau elikatzeko gero eta proiektu gehiago ari dira sortzen gizartean: energiaren eremuan –Goienar, Energia Gara...–, telekomunikazioan –Izarkom...–, kontsumo kooperatiboan –Landare, kontsumo taldeak...–, ekonomia sozial eraldatzailean –Olatukoop...– eta beste hainbatetan.

Ez dakigu oraindik euskal hedabideok –herri ekimenekoak eta publikoak– lizentzia libreen filosofia bete-betean erabiliko bagenu zein eragin izango lukeen, baina uste dut hurrengo hiru hamarkadatan oso bestelako eszenatoki batera eramango gintuzkeela. Eta ez bakarrik inoizko eduki zabalkunde handienara iritsiko ginatekeelako, baita izpiritu komunitarioan landutako esparru horrek, beste lankidetzara esparru batzuk irekiko lituzkeelako ere. Askotan gure edukiak egiten dugun bezala, gure elkarlanarekin ere, mundua ez dakit, baina gure mundutxo berriz liluratu dezakegulako. Sistema honek apurka eta denoi txertatu dizkigun norbana-koaren baloreak –ni eta nire medioa– edo elkarlana, partekatzea eta balore komunitarioak? Hor dago gakoa. ●

Bakoitzak berea osatzeaz gain, euskarazko hedabideok ere komunitate bat osatzen dugula, hori ez dugu batere garatua eta sustraitua

ARGIA

Bizi nahi duen herria!

ARGIA.EUS/EGINARGIAKOA



Jende gehiagori
ahotsa emateko,
lagun gehiagorengana
heltzeko eta
eragiten jarraitzeko
EGIN ARGIAKOA!

ARRATE ILLARO, EUSKARALDIKO KOORDINATZAILEA

“**AHOBIZI** *eta* **BELARRIPREST**, *biak dira rol aktiboak,* *eta bietan eman* *behar dira urratsak*”

Euskaraldiaren bigarren edizioa 2020ko azaroaren 20an hasiko da. Urrun dirudi, baina antolatzaileak prestaketa lanetan hasiak dira. Edizio honetako berrikuntza ariguneak dira. Ariguneak euskara ulertzen dutenak eta euskara dakitenak elkarrekin euskaraz arituko diren gune kolektiboak dira. Enpresak, elkarteak edo erakunde publikoak izan daitezke. Ariguneez aritu gara hizketan Arrate Illarorekin, baita ahobizi eta belarriprest rola sakondu beharraz ere.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Herri batzordeek, Topaguneak eta Eusko Jaurlaritzak, eta ariguneak izango dituzten entitateek, bakoitzak, zein funtzio beteko du ariguneak identifikatzerakoan, bultzatzerakoan eta sortzerakoan?

Ariguneeen aktibazioari dagokionez, herri batzordeen eta koordinazio orokorreko taldearen [Topagunea eta Eusko Jaurlaritza] lana oso antzekoa da, eragin eremua da desberdina. Koordinazio orokorreko eragileak herriz gaindiko entitateak aktibatzen saiatuko gara, nahiz eta herrian sukurtsalak izan. Saltoki katearen herriko dendara edo aurrezki kutxaren sukurtsalera herri batzordeek joan beharrik ez dute izango. Herri batzordea joan daiteke, nahi badu, baina indar handia behar da horretarako. Herri batzordeak herrian kokatutako elkarte, enpresa eta erakunde publikoetara joango dira. Adibidez, osasun zentrorra joan beharrik ez dute izango, Osakidetza gu joango gara. Gu esaten dudanean esan nahi dut batzuetan Eusko Jaurlaritza joango dela, besteetan Topagunea, besteetan aldundiak. Guk funtzio banaketa eginda daukagu. Gure lana eta herri batzordeen lana da herritarrak eta entitateak aktibatzea.


Herri batzordeek lehentasunak jarri beharko dituzte, zeren entitate guztietara jotzea ez da posible, lan handia da. Guk ere gauza bera egingo dugu, pentsatuko dugu zein entitate mota nahi ditugun gurekin eta horiengana joango gara. Haiengana gerturatzeko modu desberdinak daude: bisitak, aurkezpenak... Herri batzordeek udala baliatu dezakete gutunak bidaltzeko arigune posibleei.

Beste gauza bat da ariguneak sortzea. Lan hori entitateek egingo dute. Haien egitekoa bi zatitan bereizten dugu: bate-tik, zuzendaritzen edo arduradunen lana izango da arigune izan daitezkeen taldeak identifikatzea, non kide guztiek gutxienez euskara ulertzen duten. Kide horiekin hitz egingo dute. Bestetik, kideek erabakiko dute arigune izango diren ala ez, ahobizi edo belarriprest moduan parte hartuko duten ala ez. Baietz erabakiko balute entitateak babestu eta erraztu beharko du horien praktika.

Bi norabideei esker sor daiteke arigunea. Zuzendaritzak esan dezake “sor dezagun arigune bat hemen” edo entitateko kideek esan dezakete “hemen arigune bat sor dezakegu”. Beti ere, entitate barrukoek erabakiko dute arigunea sortu ala ez.

Herri batzordeak entitateetan barrura begirako ariguneak bultzatzen baino kanpora begirakoak bultzatzen irudikatzen ditut, kanpora begira ari denak egiten baitio harrera herritarrari. Eta arigune izan ezin direnak arigune izan daitezen eskatzen irudikatzen ditut, hau da, badakigu entitate horretan euskaraz artatzeko gai ez direla, baina guk hala artatzea nahi dugu.

Hor badago hutsune bat, baina ahobizi eta belarriprestekin gertatzen den bezala da. Euskaraz ez dakiten euskaltzaleak badaude eta ezin dute txapa jarri. Horrek erakusten du salto bat behar dela ariketa egin ahal izateko. Demagun saltoki batean ez dagoela baldintzarik barne eremuan arigunea osatzeko ezta herritarrei zerbitzua eskaintzeko ere, euskaraz egin ahal izango duen inor ez daukatelako. Entitate horrek ezin du arigune izan, baina nahi badu ize-na eman dezake informazioa jasotzeko, jakin dezan zer egin dezakeen hemendik aurrera pausoak emateko, noizbait hel dadin arigune posible izatera (gero kideek erabakiko dute arigune izan ala ez). Baliabide kutxa prestatzen ari gara entitate horiei emateko.





FOKU / JON URBE

Lehenengo edizioan ondoko mezua jaso genuen: “Ez daukagu ahobizi eta belarriprest izan daitekeen jenderik baina zer egin dezakegu?”. Euskaraldiaren aitzakian lortzen badugu horietako batzuk interesa edukitzea..._Euskaralditik hori baino gehiago ezin dugu egin. Batzuentzat ariketa egiteko aukera izango da eta beste batzuentzat aktibatzea. Lehen edizioan foku nagusia hizkuntza ohiturak aldatzea izan da, baina konturatu gara jende askok gogoeta egin duela beraien hizkuntza ohiturei buruz eta gogoeta egitea hizkuntza ohiturak aldatu aurreko pausoa da. Hori ere bada interesgarria, ez da ariketa, baina arau sozialak probokatzen baditu balio du. Entitateek diote: herritarrek eskubidea daukate gurekin euskaraz aritzeko eta beraz guk zer egin behar dugu beraiei hori bermatzeko? Zer pentsatua ematen badie, beharra dagoen seinale.

Herri batzordeen egitekoetako bat entitateak aktibatzea dela esan duzu. Erakunde publikoek ordea, derrigorra dute euskaraz egin nahi duenaren eskubideak bermatzeko. Osasun zentroa eta kirol elkarteak, biak dira entitate, baina ardura oso desberdinak dituz-

te hizkuntzari dagokionez. Ez ote da barregarria herri batzordea herriko osasun zentroko pediatria sailean arigunea sortzeko eskatzen aritzea?

Herri batzordeari dagokio lan hori?

Erakunde publikoek bere bidea egin behar dute, zeren beraien baldintzak dituzte. Derrigor egin behar dute euskaraz hala eskatzen bazaie, baina derrigor egin behar dute gazteleraz herritarrek hala nahi badute.

Beraz, agian, pertsona horrek ezin du ahobizi izan. Horregatik diot bere bidea egin behar dutela. Herri batzordeek herri elkarteak aktibatzen egin behar dute lan, baina Osakidetza erakunde publikoa da eta Jaurlaritzaren menpekkoa da. Jaurlaritzan Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza dago eta sail horretatik beste sailetara pasatzea eta eragitea lortu beharko litzateke.

Esate baterako, anbulatorioetan eta nagusien egoitzetan sortuko diren arigu-

neen berri emango diegu herri batzordeei, hala batzordeek jakingo dute zein ari diren Euskaraldian parte hartzen.

Herritarrok bakarka ere egiten dugu aktibatze lana, etengabe eskatzen diegu entitateei euskaraz egiteko guri.

Edizio honetan arriskua dago jendeak ulertzeko Euskaraldia entitateetan egingo dela, ariguneetan alegia. Ariguneetara gehitzea da, aurreko Euskaraldikoa berdinduz mantenduko dugu. Ahobizi eta belarriprest izango gara eta horietako batzuk parte hartuko dute ariguneraren batean.

“

Entitateek diote: herritarrek eskubidea daukate gurekin euskaraz aritzeko eta beraz guk zer egin behar dugu beraiei hori bermatzeko? Zer pentsatua ematen badie, beharra dagoen seinale”

Ahobizi eta belarriprestetara etorrira, bi rolek zer esan nahi duten sakonago azaltzeko

asmoa duzue.

Komunikazio fokoa nagusietako bat izango da ahobizi eta belarriprest rola azaltzea, ez dadin ulertu hizkuntza gaitasunaz ari garela, baizik eta jokabideaz. Euska-

2020ko EUSKARALDIA nolakoa izango da?

2018an bezala, ahobiziak eta belarriprestak izango dira. 2020ko berrikuntza ariguneak dira, hots, entitateek, dela denda txiki, saltoki handi, erakunde publiko, lantegi edo herriko elkarte, euskaraz egin ahal izateko guneak sortuko dituzte.

Hurrengo Euskaraldia ez da 2019aren hondarrean izango, 2020an baizik. Hala ere, oraingoan, prestaketa lanak urte eta erdiz luzatuko dira. Euskaraz aritzeko ariketa 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4a bitartean egingo da. Hamabost eguneko ariketa izango da, beraz, aurtengoa.

Iaz bezala, ahobiziek eta belarriprestak protagonismo handia izango dute, eta egiteko bera. Hala ere, Euskaraldiaren antolatzaileen nahia da aurtan bi rolak hobeto azaltzeko ahalegin handiagoa egitea eta ariketa sakonago eta zorrotzago egiteko aukera izatea. Iaz hizkuntza gaitasunarekin lotu ziren bi rolak, eta horregatik, ahalegin berezia egingo dute rol bakoitzak zer esan nahi duen azaltzen. Iaz bezala, identifikazio txapak eramango dira paparrean. 2018an 225.000 herritarrek eman zuten izena. Jende gehiagok parte hartzea nahi dute antolatzaileek, Euskal Herrian euskara ulertzen duen jende kopurua hori baino handiagoa baita.

2020ko berrikuntza ariguneak izango dira. Ariguneak euskara ulertzen dutenak eta euskara dakitenak elkarrekin euskaraz arituko diren gune kolektiboak dira. Entitateek, hau da, edozein motako erakunde publiko, enpresa, denda edo herri elkartek halako guneak sortzeko erraztasunak jarriko dituzte eta gune horietako pertsonak ariketan parte hartzeko nahia adierazi behar dute. Euskaraldiaren antolatzaileek ariguneak sortzen eta identifikatzen egingo dute lan. Ariguneak barrura begira edo kanpora begira

sor daitezke. Adibidez, barrura begira, enpresa bateko bilerak euskaraz egin daitezke parte hartzaileek euskaraz ulertzeko gaitasuna dutelako eta enpresan zuzendaritzaren eta langileen artean bilera horiek arigune bihurtzea erabaki dutelako. Kanpora begira, saltoki handi batek saltzailez osatutako arigune bat sor dezake erosleak euskaraz artatzeko.

2018ko Euskaraldian parte hartu zutenen artean hiru galde-sorta banatu ziren eta hortik abiatuta egingako ikerketaren emaitzak irailaren bukaera aldera emango dira.

Euskaraldiaren antolatzaile nagusiak iazko berak dira: Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza eta Euskaltzaleen Topagunea. Haiekin batera arituko dira Euskarabidea, Euskararen Erakunde Publikoa eta Euskal Elkargoa.

Urte eta erdiko kronograma

HERRI BATZORDEAK

2018ko Euskaraldian 405 herri batzorde sortu ziren Euskal Herrian. Askok Euskaraldia bukatu ondoren desegin ziren, beste batzuek aurrera egin dute. 2020an gauzatuko den Euskaraldirako herri batzordeen izen-ematea jada hasi da. Batzordeek abendura bitartean izango dute izena emateko aukera.

ENTITATEAK

Lehen urratsa da arigunea sortzeko gai diren aztertzea, alegia, ea guneak kideek euskara ulertzeko gaitasuna duten. Azterketa hori egiteko izen-ematea 2019ko urritik 2020ko uztailera bitartekoa izango da.

Azterketa eginda, arigune izateko izena emateko epea 2019ko azaroaren irekiko da eta 2020ko uztaillean itxi.

AHOBIZIAK ETA BELARRIPRESTAK

2020ko irailetik aurrera eman ahal izango dute izena.

raz ondo moldatzen den pertsona izan zaitezke eta belarriprest izan. Une oro egingo baduzu euskaraz ulertzen dutenekin ahobizi zara, baina ez baduzu une oro egingo, baina askotan bai eta gainera aktiboki eskatuko badiezu ingurukoei hala egiteko, orduan belarriprest izango zara. Eta agian ez duzu egingo ez bat eta ez bestea, nahiz eta euskaraz oso ondo moldatu. Horrelakoak ere badira.

Hizkuntza ohiturak aldatzea bada helburua ez da logikoa gaitasuna dutenak ahobizi izan daitezen animatzea?

Zeren arabera. Guk eskailerak igo nahi ditugu eta banaka, binaka edo hirunaka igo ditzakegu, ezin ditugu bosnaka igo. Batzuentzat, euskaraz ondo moldatuta ere, gaztelaraz hitz egitekin euskaraz hitz egitera pasatzea oso ariketa nekagarria da, energia handia eskatzen du, tentsio handia, oso deseroso eta txiki sentitu daitezke. Algortakoa naiz eta Uribe Kostako lagunak ditut. Denak gara ikastolako umeak, batzuk ohitura daukagu egunerokoan euskaraz moldatzeko eta beste askok ez, baina euskaraz denak moldatzen gara. Kuadrillako erdia baino gehiago belarriprest izan zen, eta beste egunetan baino gehiago egin zuten euskaraz, eta gaiaren inguruan gogoeta egin zuten. Norberaren abiapuntuaren arabekoa da. Ez da erraza.

Hizkuntza ohiturak aldatzera doala jabetu den unetik pentsatu behar dugu ariketa egiteko prest dagoela herritarra, jakinda ahobizi rola exigentea dela. Baina ahobizi izan beharko lukeena belarriprest izateak zer zentzu dauka? Ez da hobe ez parte hartzea, indarririk ez baduzu?

Nolabait esan, denok egin dezakegu korrika, baina ez da gauza bera tarteka korrika egitea ala maratonia egiteko prest egoitea. Hasiberria banaiz hoge minuturekin hasiko naiz, gero 30 minutu... daukagun abiapuntuaren arabera. Nire kuadrillan sumatu dut garapena.

Perfil horretan bai, baina neurri handi batean euskaraz bizi diren guneetan? Zestoa batean ez legoke arriskurik? Hau da, euskaraz asko egiten duenak belarriprest rola hartu eta ez dut esango atzera egitea, baina aurrera batere ez egitea?

Beste kontu bat dago hor ordean, zenbat emateko prest zauden. Ez da 0 edo 100. Nik nahiko nuke euskaraz dakiten



FOKU / JAGOBA MANTEROLA

HAUSNARTU-ARITU. "LEHEN EDIZIOAN FOKU NAGUSIA HIZKUNTZA OHITURAK ALDATZEA ZAN DA, BAINA KONTURATU GARA JENDE ASKOK GOGOETA EGIN DUELA BERAIEK HIZKUNTZA OHITUREI BURUZ ETA GOGOETA EGITEA HIZKUNTZA OHITURAK ALDATU AURREKO PAUSOA DA".

guztiek euskaraz hitz egitea eta ez genuke beharko Euskaraldirik. Gauza bat da guk zer nahi dugun izatea euskaltzale aktibo horiek eta beste bat zer nahi duen izan bakoitzak.

Plastikoaren kontsumoaren adibidea dugu. Batzuk oso kontzientziatuta daude eta bere bizitzatik plastikoak kendu dute eta beste batzuk diote "hasiko naiz saltokira noanean nire poltsa eramaten". Bakoitzak erabakiko du zenbat emateko prest dagoen. Ekimenak malgutasuna behar du zeren hobea da 50 ematea 0 ematea baino.

Jarraitzen dut pentsatzen ezagutza eta erabilera handia den guneetan herritarrak husteko, edo ohituretan

hobekuntzarik ez egiteko, arriskua dagoela.

Beste aukera bat da moldagarritasunaren izenean, Zestoako herri batzordeak bere lanketa egitea herritarrekin eta esatea: eman ezazue ahal duzuen guztia guk baldintzak baititugu ahobizi izateko. Herri batzordearen arabera dago.

Esan nahi nuen herriaren ezaugarri soziolinguistikoak kontuan hartu beharko liratekeela.

Eta erabilera datua nolakoa den. Hortik gora egin behar da.

Horixe esan nahi nuen, batzuk oso goian daude eta rolak nola aurkezten dituzun eta zer malgutasun ematen

duzun, herritar batzuek gora ez egiteko arriskua dago.

Belarriprest izanda ere egin dezake elkarrizketen %95 euskaraz, baina egia da kontua dela hamabost egunetan gure hizkuntza ohituretan beste salto bat ematea, lehen egiten genuena baino gehiago egitea. Bakoitzak ikusiko du zein den bere abiapuntua eta zer komeni zaion.

Belarriprest rolak ez duela laguntzen, alegia.

Rol pasibotzat jo genuelako: niri egidazu euskaraz eta nik jarraituko dut berdin-berdin. Belarripresta ere saiatu behar da euskaraz egiten, agurrak badira ere. Biak dira rol aktiboak eta bietan eman behar dira urratsak, ariketa ondo egiten bada. ●

BABESLEA: LEZOKO UNIBERTSITATEKO UDALA




UDAN EUSKARAZ *Blai!*

ARGIA 1919 - 2019

Ø2008

SLOW · KAFETEGIA

BERTAKOA · GARAIOA · EKOLOGIKOA
GEUK PRESTATUA · ERANTZUKIZUN SOZIALA




Altuna baserria · Arrillaga Txiki baserria · Basatxerri · Behieko Sabekoetxea · Biok gazta
Bodegas Lezaun · Carlos Petrina · El Alcaraván · Ertxieko · Euskal Herria Esnea
Euskal Untxia · Goi Eko Haragia · Karabeleko · Goiti okindegia · Gumendi
Larreta Esnekiak · Lur Lan · Lurrarte · Mahala · Nabarreko · Orexa gazta
Pikunieta baserria · The Loaf · Tolosako Merkatua · Urrullo agroaldea · Zalmendi

ORDUTEGIA | Astelehenetik ostiralera | KAFETEGIA 07:00-17:00 | JATETXEA 12:30-15:20

Hernani, Gipuzkoa | 943 265 022 | www.diametro200.com

Freskatzea Antzinaroan



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Mesopotamia hegoaldea, K.a. XVIII. Oholtxo batean idazkera kunei-formez deskribatzen denez, Terqa herrian izotz-etxe bat eraiki zuten. Txinan, K.a. VII. mendeko elur-zulo baten arrastoak daude, baina litekeena da lehenago ere halakoak egotea. Eta badirudi Greziako lehen izoztegia Alexandro Handiak eraikiarazi zuela, froga materialik ez dagoen arren. Zibilizazioak sortu eta kobazuloetako freskotasuna atzean uztearen ajeak...

Izotza eskura izateko eta, hala, udako egun beroak freskatzeko aukera ematen zuten egitura horiek teknologikoki hobetu zituzten Antzinako Erroman, eta Inperioko probintzia guztietara zabaldu. Etna sumendiko, Alpeetako, Sierra Nevada... elurrak bildu eta mandoen bidez jaisten zituzten haranera. Etxe aberatse- nek beren elur-zuloak izaten zituzten. Eta urtutako izotza ere aprobetxatzen zuten; izoztegiek isurbideak izan ohi zituzten ur hotz hura akueduktu sistema txikien bidez etxe osoko hormetan zabal- tzen zutenak, *dies canicula* edo "txakur egunak" eramangarriagoak egiteko; uda- ko zenbait egunetan Canis Major konstela- zioko izar nagusia, Sirio, beste edozein garaitan baino distiratsuago ikusten da eta horregatik eman zitzaien izen hori udako egun beroenei.



ABARKOUH-KO IZOTZ-ETXE PERTSIARRA, EGUNGO IRANEN. IZOZTEGI HAU EZ DA ANTZINAROKOA, BAINA GARAI HARTAKOEN ANTZA HANDIA DU, HOTZA EKOIZTEKO TEKNOLOGIA EZ BAITZEN FUNTSEAN ALDATU XX. MENDERA ARTE.

Baina zer egin inguruan elurtutako gailurrik ez zegoenean, Afrika iparralde- ko probintzietan edo Palestinan, esatera- ko? Antzinako egiptoarrek urbanismoa eta arkitektura erabili zituzten horretar-ako. Kaleak modu jakin batean egitu- ratzen zituzten eta leihoak eta ateak ez zituzten ausaz zabaltzen; aire-fluxuak propio sortzen zituzten. Erromatarrek, ordea, basamortuan izotza ekoiztea lortu zuten. Elur-zuloek baino sakonera txi- kiagoa eta zabalera handiagoa zuten pu- tzuetan ura biltzen zuten; egunez, ondo leundutako ezkutuez estaltzen zuten zu- loa, ahalik eta argi eta bero gehien islatu

zezaten; gauez, temperaturen muturreko beherakada baliatuz, izotz geruza fin bat sortzen zen; hura jaso eta bizkor garraia- tzen zuten biltegi freskoetara. Ez zen oso sistema eraginkorra eta izotzaren pre- zioa asko garestitzen zuten.

Horrek ez du esan nahi Inperioko gai- nerako lurraldeetan izotza merke saltzen zutenik; beti izan zen, esaterako, ardoa baino garestiagoa eta, beraz, luxuzko sal- gaia. Baina, sistema hoberik ezean, elur- zuloak edo izotz-etxeak izan ziren hotza ekoizteko bide nagusia XX. mendera arte, hozkailu elektrikoek freskatzea "demo- kratizatu" zuten arte. ●



Angurriak ez dira aldatu 5.000 urtetan

XIX. mendean, Egiptoko momia baten ondoan ehortzita, zenbait angurria hos- to aurkitu zituzten. 1876an Joseph Hoo- ker botanikari ingelesari bidali zizkio- ten eta, berriki, beste botanikari batek, Susanne Renner alemaniarrek hosto horien DNA aztertu du. Genomaren se- kuentzia partzial bat lortuta, ondorioz- tatu du duela 5.000 urteko sandia ho- riek egungoak bezain gozoak eta mami gorrikoak zirela. Angurrien formaz eta

tamainaz ez du informaziorik ematen sekuentziak, baina garai hartako mar- golan eta erliebeetan ikusten da egun- goen antzekoak zirela. Darfur inguru- ko nekazariak hasi omen ziren Afrika erdialdeko angurria basatiak lantzen. Handik Egiptora iritsi ziren, jatorrizko garraztasuna leunduta. Eta egiptoarrek egindako hobekuntzekin bete-bete- an asmatu zuten nonbait, orduz geroztik angurriak ez baitira ia aldatu. ●

ASMA-BELARRAREN BURUNDANGA



Simaur eta hondakin pilatan apopilo bat izaten da udan, ez denean baina askotan: asma-belarra edo estramonioa, *Datura stramonium*. Zenbaitek “ikozoro” edo “pikuzoro” izenak ere jaso dituzte landare horrentzat. Landare deigarria da, tentea, hostaje distiratsua, lore zuri handiak eta fruitu kozkor arantzatsuak dituena. Rembert Dodoens (1517-1585) botanikari eta mediku flandriarrak *pomum spinosum* zela esan zuen fruituagatik. Geroztik, gazteleraz, *manzana espinosa*, portugesez eta galegoz *pomo espinoso*, frantsesez *tête de hérisson* edo *hérisson*, katalanez *castanyer* eta *castanyes*, ingelesez *thornapple* eta alemanez *Dornapfel* deitzen da. Kaspiar Itsaso aldetik edo Ameriketatik ekarritakoa edo etorritakoa ote den hizketagai izan da denbora luzez. Agi danean, XVI. mendean iritsi zen Mexikotik. Guaranieraz *yua aqué* esaten diote: “yu” arantza, “a” fruitu organismo edo izaki organiko, “ha” egin eta “que” lo egin; hau da, fruitu arantzatsua duen landare lo harrarazlea.

Landare oso toxikoa da. Bere atal guztietan du hiosziamina, atropina eta eskopolamina. Pozoia dosiaren araberrakoa izaten da, eta gai horiek asko erabili izan dira eta erabiltzen dira medi-

kuntzan. Pozoiari beldurra zaio, ordea, eta era guztietako izen itsusiak jarri zaizkio gure inguruko hizkuntzetan: deabruaren belarra, kirastun belar txarra, deabruaren pikoa, infernuko pikoa, piko zorua, belearen belarra, aztiaren belarra, hildakoen belarra, harakina, isekari, ijito sagarra, pozoia eta abar. Kitxuaz *chamico* esaten diote, erogarria edo zorarazlea.

Nekazariak oso ondo ezagutzen dute, eta ez dute ikusi ere egin nahi. Zenbaitek, ordea, bere onerako erabiltzen dute; izan ere, badakite beste animalia gehienek ere ez dutela maite. Besteak beste, gazteleraz honela ere esaten zaio: *espantalobos* (otso uxatzailea), *yerba ratonera* (sagu-belarra), *matatopos* (sator hiltzailea). Frantsesek *herbe des taupes* esaten diote. Inguruan ditugun animalia “gaiztoak” uxatzen ditu asma-belarrak.

Bere pozoien artean eskopolamina du. Lasaigarri, zorabioak sendatzeko eta abar erabiltzen da medikuntzan, baina baita droga gisa ere; dena den, albo kalte ugari du. Tartean logale handia eta amnesia sakona. Sexu bortxaketetan gero eta gehiago erabiltzen denaren susmoa dagoen burundanga sonatua- ren osagai nagusia da. Kontuz simaur eta hondakin jende pilen aldamenean. ●



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

IRAKURLEAK GALDEZKA

Kaixo Jakoba!

Kalabazinak behin alea emanda usteltzen ari zaizkigu. Zer dela eta? (Alaitz)

Bi arrazoi ikusten ditut hori gertatzeko. Batetik lurra ukitzen duela txikia denean, azala zaildu gabe duenean, hortik usteldu daiteke. Bestetik txikia delarik ere gertatzen da maiz ez dela behar bezala polinizatu, eta lorearen atzean dagoen kuiatxoa galdu egiten da heldu gabe.

Lehenengorako azpian lastoa, belarra edo zerbait jarri. Bigarrenorako eskuz polinizatzea gomendatzen da, lore arra hartu eta erdian duen isiputxoa, lore emean (atzean kuiatxoa duena) igurtzi. ●



Bidali zure galdera:
jakoba@bizibaratzea.eus

EUSKAL HERRIKO LABORANTZA GANBARA

MENDIKO SUAK KALTEGARRI DIRA EDO EZ?



GARAZI
ZABALETA

Urtero izaten ditugu deiak Euskal Herriko Laborantza Ganbaran mendiko suen inguruan: jendeak nahiko beldurtuta deitzen digu, galde-tuz ea nola den posible mendiak sutan egotea, dena beltz uztea...". Iker Elozegi EHLGko kideak azaldu digu atera berri duten *Mendiko suak Ipar Euskal Herrian* liburuxkaren atzean zenbait herritarren kezka zeudela. Suteek ingurumenean eta bioaniztasunean duten eragina klima mediterraneoko inguruetan soilik zegoen ikertuta, eta laborantza ganbarakoek uste dute ondorioak gurean ez direla berak, klima erabat ezberdina delako.

BIOANIZTASUNA ETA EROSIOA

Mendiko suak bertako bioaniztasuna kalte-tzen eta lurraren erosioa eragiten dutela dira erreketen aurkakoen arrazoi nagusietakoak. Mediterraneoko basoetan gertatzen diren sute handiek hori erakutsi badute ere, gure mendietako suak ez dute eragin bera, liburuxkan azaltzen dutenez. "Mendiko suak, neguan egiten direnek, batzuetan urtero eta beste zenbaitetan 2-3 urtetik behin, erregai gutxi dute, azkar pasatzen dira eta ez dituzte tenperatura hain altuak hartzen", dio elkarteko kideak.

Landarediaren zikloa moztea da mendiko suen helburua: erreketarik ez balego inguru horiek sasitu eta oihandu egingo lirake eta belardi eta bazkalekuak

galdu. "Bioaniztasuna ez da galtzen mendiko suekin. Gakoa da oihanean eta belardian bioaniztasuna ezberdina dela". Erosioaren aldetik ere, azken bost edo sei mila urteetan egin diren erreketek erakusten dute, haien iritziz, mediterraneoko kliman ez bezala lurraren emankortasuna ez dela galdu gurean. "Ez dago benetak frogarik gure mendietako lurretan higadura gertatzen ari dela erakusten duenik".

MENDIKO SUAK, SISTEMA OSO BATEN PARTE

EHLGk gaiaren inguruan hausnarketa eta eztabaida bultzatu nahi izan ditu liburuxkarekin. "Mendiko suak onak dira" eta "mendiko suak txarrak dira" dikotomia sinplista horretatik atera eta egoera bere osotasunean, konplexutasunean eztabaidatu nahi dute. "Mendiko su horiek sistema eta kultura baten parte dira, mendia baliatzeko elementu bat gehiago: ganadua maneiatzea beste elementu bat den bezala". Kontziente dira, dena den, ganadurik eramaten ez den lekuetan erreketen inguruko eztabaida eman beharra dela. "Zergatik ez utzi leku batzuk berriz oihantzen?", galdetzen du.



Laborariak behar dituzten inguruetan, baina, suaren gaia ezin da administrazioaren esku utzi elkartearen ustez, gai horren erdigunean egon behar du laborariak. Abeltzaintza bizirik mantentzeko mendiko suen sistema beharrezkoa izanik, galdera, haien ustez, honakoa da: zenbat larre, zenbat laborari nahi ditugu? ●

sasoikoa ...

bertakoa ...

NAFARROAKOA



1966ko abenduaren 25a



KOLDO IZAGIRRE

Urte bik ehun aste, 1963tik geroztikako *Zeruko Argiak* gure kulturaren errepasoa egiteko parada hartu zituen 100, 200, 400, 500 (Orixeri buruzkoa osorik) eta 600 zenbakiak (bertsolaritzaz). Berrehungarren alea 1966an egokitu zen, fedea galdu, euskara zikindu eta jatortasuna kordokatu behar zuen belaunaldia agertzen hasitako garaian.

Mendibururen eskultura, Ruiz Balerdiren eta Zumetaren margo bana, orrialdearen urte bietan Mikel Lasaren poema (*Baina euskaltzaleek balekite aberatsegia dela hizkuntzarik txiroena ere gure sabelean daramagun historia apurtu hau kontatzeko!*) Ibon Sarasolaren bi poema labur (*Ilargia harrika hautsi dut*), eta abesti ezaguna izanen zen Xabier Leterena (*Ai poeta, gogorra izango da zuretzat azken juizioko eguna!*).

Ez da kasualitatea artelanaren garrantzia ale honetan, 1966 hartako ekainean Ibon Sarasola aldarri egina zen Gazte Naiz atalean: *Edo berritu edo hil, hau da urte hauetako euskal literaturaren eta euskeraren beraren auzia. Berritze hau, bere ondorio guztiekin onartu behar dugu. Gaur, Emen, Orain, Danok taldeak egiten ari direna euskal artearekin, noiz ikusiko dugu euskal literaturan?*

Erantzuna, bere belaunaldiak eman zuen literaturan ez ezik kan-tagintzan... eta politikan. ●

1984 ARGIAREN LEHEN URTEKARIA

Kazetaritzak eta telefono-gidak bat egin zuten lurraldea

MIREN OSA GALDONA

1984. urtekoa da ARGIAk kaleratutako lehen urtekaria. Urteari begiratuz gero, zerutik lurrerako trantsizioa egin berritan izan zela ondorioztatu daiteke; proiektua sustraitzen hasi berria zen aldian. Kontuan izanda aldizkaria astez aste aurrera ateratzen nahiko lan edukiko zutela, eta baliabide ekonomikoak oso aldekoak ez zirela, zer nolako beharrei erantzuteko osatu zuten 80ko hamarkadako kazetari sutsu haiek *Urtekaria*?

Ordurako *Eginek* urtero kaleratzen zuen hamabi hilabeteek utzitako gai potoloen bilduma. Bide beretik ibiltzen zen *El País* egunkari espainiarra ere. Inguruko pare baina euskara hutsean sortutako lehen urtekaria kaleratzea erabaki zuen ARGIAk.

1984ko gertaera nagusiak eta euskal kulturarekin zerikusia zuten hainbat helbide jaso zituzten lehen alean. Sailetan banatu zituzten gaiak, eta pisu nabarmena eman zioten kulturari: antzerkia, literatura, irratia edo telebista bezalako hamar azpi-sail identifikatu zituzten lehen kolpean, eta kronologikoki sailkatu zituzten. Sail bakoitzeko 15-20 gertaera azpimarragarri aukeratu zituzten. Urtekariak funtzio soziala ere lortu zuen *Euskal Kulturaren Agendari* esker.

Kultura arloko profesionalen nahiz kultur elkarten helbideak eta telefonoak biltzen zituen aurkibide aitzindaria gehitu zioten urtekariari. Internetik gabeko garaian, telefono gida baten funtzioa betetzen zuen, eta ospea zein erreferentzialtasuna lortu zituen kaleratu bezain pronto. Hori guztia 1984an ARGIAren inguruan mugitzen ziren idazle eta kazetari haiek beren agendatan zituzten helbideak eta erreferentziak guztion eskura jarri izanari esker.

Proiektua eraberritua zegoen ordurako. 1981ean hainbat kazetarik eta langilek ARGIA utzi ostean, kinka larrian geratu zen lantaldea. Urtebeteren buruan martxa hartu, eta astez aste aldizkaria kaleratzea lortu zuten. Azpiegituran inbertsio handia egin zuten, informatizazioaren aldeko apustua eginez. Fotokonposizioa erabil-



tzen zuten aldizkaria muntatzeko, auto-ekoizpenean oinarrituta. Argia Egunean kaleratu izan zuten urtez-urte urtekaria.

Internet herritarren bizitzetan sartu izanak ekarri zuen *Urtekariaren* funtzioa bera birplanteatu beharra. Izan ere, egun Interneteko bilatzaileetara jotzen dugu iraganeko gertakari zehatzen bila, zer esanik ez kultur eragileen erreferentzia eta kontaktu bila. ARGIAk egungo bizimoduaren beharretara egokitu zuen *Urtekaria* eta horrela, 2016an *Aktualitatearen Gakoak* izatera pasa zen: kulturaren zentratu beharrean era guztietako gaietara atek zabalduz eta albiste esanguratsuen bilduma baino, pil-pilean dauden gaiak irudi nahiz hizki bidez sakonago jorratzeko liburukia bihurtuz.

Urtekaria osatzeko kultur albisteen eguneroko jarraipena egiteak ekarri zuen *Euskal kulturaren hari@buletina* garatu izana, eguneko kultur albisteen bilduma eskaintzen zuena emailean. *Urtekaria Aktualitatearen Gakoak* bihurtu zenean, buletina ere kulturaz gain beste gaiekin hornitu zen. ●

ARGIAREN URTEKARIA

Gakoak Euskal Herri- munduari begiratzeko

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Ez da erraza mundua nondik nora dabilen ulertzea. Niri sarri kosta egiten zait. Eta daramagun abiaduran, oraindik eta detaile gehiago galtzen zaizkit bidean. Informazioaren garaian uste dut inoiz baino desinformatuago gaudela, gaituztela, eta zein inportantea den eguneroan bosgarren martxa sartuta goazenean frenoari sakatzeko ariketa egitea. Zenbat kostatzen den erdiko pedala bilatzea. Ea honek laguntzen dizun, irakurle.

Entzun izan dut ARGIAREN irakurleen artean, lasai leitzeko aldizkaria dela; gaurkotasunez bustia, baina egunean eguneko albisteetatik ihesi, patxadaz begiratzekoa. Orain lau astez oporretara goazenez, ez da asmoa inor irakurgairik gabe uztea eta zerbat mardulagoa, sakonagoa den liburu bat eskainiko zaie harpidedun denei urtero moduan: *Aktualitatearen Gakoak* (ondoko orrian Miren Osa Galdonak ongi azaldu bezala). Iraganean otsailean plazaratzen zen *Urtekaria* du arbaso, garai batean euskal kulturaren urteko erreposoa egiteko sortua, eta funtzioa agortu zitzaiolako edo garaiak aldatu zirelako, beste buelta bat eman zitzaiona hainbeste kronologikoki pasatakoari begiratu beharrean aktuali-

tateari eta etorkizunari begira jartzeko asmotan. Eta zein garai hoberik abuztua baino, oporak izan edo ez, ikasturteko erritmotik aterata ARGIAko kazetari eta kolaboratzaileen elkarrizketa, errepor-taje eta analisiak lasai irakurtzeko?

Diseinua berrituta dator aurtengo liburukia. Azalean, udan Biarritzen bilduko den G7a. Sarean dagoeneko ikusgai dago portadan jasoko den Xabier Sagasta Lacalleren ilustrazioa. Etxe honetako kolaboratzaile den Asier Blas politologoak G7aren inguruan egindako analisisa irakurri ahal izango dugu, eta dagoeneko goi bilera hau salatzeke egindako deialdien egitaraua ere jasoko da liburuan.

Ez dizkizut kontatuko aldizkari berezian topatuko dituzun gaiak, zuri utziko dizut eza-gutzeko plazera. Bakarrik erreplikatuko dizut *Gakoak*-en lehen orrian sarrerak azaltzen duena: "Gure elkarrizketak, kezak, gure pentsamenduak enpresa handi eta bankuenak diren hedabideek ezarritako markoetatik ateratzen laguntzeko aldizkaria duzu 2019ko *Aktualitatearen Gakoak*".

Esandakoa, sakatu freno, moteldu abiadura eta, udan (ahal baduzu neguan ere bai), gozatu patxadaz. ●



Sakabanatuon leihoa

Argia Jendeak emailaz eta sare sozialen bidez idazten dizkigu zabaldu nahi dituzten mezuak. Sakabanatuta eta komunikazio eskubidez gabetuta daude espetxean ARGIA komunitateko kide ugari, eta leiho hau ireki dugu gutunez baizik komunikatu ezin duten horiek beren mezuak publiko egin ahal izan ditzaten.

Ez dugu besteek bidalitako testuetan guraizeak sartzen ibili nahi, horregatik, beharrezkoa da bidaltzen diren mezuak gehienez luzera hau izatea: 50 hitz. Mezuak bidaltzeko helbidea:

Argiako erredakzioa
Zirkuitu ibilbidea 15
20160 Lasarte-Oria

AZOKA
AZOKA.ARGIA.EUS

NOLA DA MUSUTRUK?

Ostegunetan 10:00etan jartzen ditugu Argia Jendearen-tzat musutruk dauden gaiak eta zozketarik gabe, bizkorren eramaten dituenarentzat dira. Ondasunak banatu ditza-gun, urtean musutruk gai bat hartzea eskatzen da.



**SAN TELMO MUSEORAKO
SARRERAK**

MUSUTRUK JARRIKO DEN EGUNA:
Irailak 5, osteguna, 10:00etan

“Ez da liburu erosoia biolentzia ahoskatzen duelako, baina maitasunetik egindakoa da”

UXUE ALBERDI

BERTSOLARIA ETA IDAZLEA

Kontrako ezatarritik liburuaz hitz egiteko elkartu gara bizileku duen Getarian. Emakumeek bertsotan egin duten ibilbidean mugarri bat da liburua, honen ostean ezin esango baitugu "ez nekien" edo "ez dut ulertzen".

✍️ **ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA** 📷 **DANI BLANCO**

Hamabost bertsolari elkarrizketatu dituzu, egun plazaz plaza dabilzanak. Azaldu hautu hori.

Orainari tenperatura hartzea zelako liburuaren helburuetako bat. Debate eta tentsio baten erdian sortutako lana da. Orain ari garenok orain dauzkagun ilusio, erronka, min, poz, pentsamenduak biltzea nahi genuen. Ez dakit lan honi nola begiratu diogun hemendik 30 urtera, baina badakit ez dugula horrelakorik duela 150 urteko inprobisatzaileei buruz, haien ahotik jakiteko zertan ari ziren, zer pentsatzen zuten, artikulaziorik ba al zuten haien artean... iraganeko emakumeek egin dugun irakurketa aldrebesa izan da askotan, aurreiritzieta-rik abiatu garelako, ez dugulako beraien pentsamenduaren lekukotzarik.

Bestetik, neurria mugatu beharra neukan, Lisipe bildumako liburuak normalean hau baino laburragoak izaten baitira. Iruditu zitzaidan hamabostekoa lagin polita zela egungoari neurria hartzeko.

Debate baten erdian sortu dela esan duzu. Zein da bertsolaritzan egun sakonean dagoen eztabaida?
Eztabaida gaia baino, bizi dugun ga-

raian jarriko nuke arreta. Bidea egin da 2003an Azkizun egin zen emakumeen lehen bilera hartatik (lehenagotik ere egin zen bidea kontuan izanik). Topaketa hartan esperientzia trukea egin zen. Geroztik plazan bildu izan garenetan askotan atera izan dira generoari lotutako gaiak. Emakume bertsolarien artikulugari argitaratu da, hitzaldiak, ikastaroak, uni- bertsitateko lanak, elkarrekin kantatzeko guneak sortu ditugu... horren guztiaren ondorioz, guk dakigula lehenbiziko aldiz, artikulatuta gaude bertso munduko feministak. Eta horrek jarri du bertso munduan genero gatazka lehen lerroan. Gai honek indarra hartu duen honetan, sortu dira erresisten-

tziak, beldurrak eta hainbat diskurtso berri-zahar.

Bertsozale Elkartek 2018an egin zuen gogoeta prozesuan, generoari bu-

ruzko tailerra izan zen jendetsuena eta beste tailerretan ere askotan atera zen gai hau, zeharlerroa izanik dena ukitzen duelako. Hain kolektibo zabal eta askotarikoa izanda, gatazka sortu daitezke hainbat aspektutan: diagnostikotik bertatik hasita, erritmoetan, moduetan... bakoitzak dituen behar eta interesen arabera. Aldaketa prozesu guztietan bezala, debatea zabalik dago. Begiratzen dut debaterik ez dagoen lekuetara, eta eremu baketsuak dirudite, baina... Debate hau bizi-bizirik dagoen lekuetan eta talka handienak dauden lekuetan ari da zerbait egiten gai honetan.





Liburuan ageri diren emakume bertsolari guztiak ez daude ados bertsolaritzan egin den bide feministarekin. Batzuek kanpo ikusten dute beren burua. Hauek ere sartu nahi izan dituzu. Zergatik?

Iritzi horiek ere orainaren parte direlako eta lekua izan behar dutelako. Gainera, Bertsozale Elkartearen gogoeta prozesuan egon zen emakume talde bat adierazi zuena haien ahotsa eta diskurtsoa ez dela kontuan hartzen. Inportantea iruditzen zitzaidan hori ere jasotzea. Bestalde, iruditzen zait "kanpo-barra" kontzeptuak arriskutsuak direla: inor ez da nor esateko nor dagoen kanpoan eta nor barruan, feminista moduan identifikatzen den guztia feminista da. Eta kontzientzia hartzea edo feminista izatea ez da zure buruari egun batean jartzen diozun etiketa, *continuum* bat da, bizitza osorako lana. Liburuan parte hartu dugun guztiok egon gara noizbait beste posizioen batean edo beste emozio batzuetan. 2003an Azkizun ematen ari ziren debateen aurrean, neronek nire 19 urteetatik pentsatzen nuen hori aurreko belaunaldiaren gatazka zela eta gu libre geundela horretatik, dagoeneko gaundituta zeuden gauzei buruz ari zirela. Ondoren plazak eta eguneroko bizitzak eraman nau beste modu batean sentitzera eta pentsatzera.

Inportantea iruditzen zait belaunaldi talkarik ez sortzea eta feministen arteko artikulazioa sendotzea, ez arrakalaztea. Momentu honetan zenbait puntutan ados gaudenok lehenago ez gara ados egon. Oso garbi ikusten dut zerk eraman gaituen artikulatzera: elkarrekin sortzeak, elkar ezagutzeak. Izan ere, askotan urrutitik begiratzen diogu elkarri, kontraktasunetik edo errezelotik. Sistemak berak elkarren kontra jartzera bultzatzen gaitu. Elkarrekin sortzeak dakarren gertutasunak, elkarren bizipenak errekonozitzeak, testuingurua konpartitzeak beste leku batera eramaten gaitu. Diskurtsotik, burutik, abstraktutik abiatu beharrean praktikatik abiatzeak gerturatu egiten gaitu. Horregatik izan dira hain garrantzitsuak *Ez da kasualitatea* saioak eta Ahalduntze Bertso Eskola, adibidez.

22 ataletan antolatu dituzu elkarriketatuek beren bizipen eta gogoetetatik egindako ekarpenak. Emakumeen bertsogintza azpiratzeko erabiltzen den mekanismo bat azaltzen du atal bakoitzak. Mekanismoak iturriren batetik hartu dituzu, edo zuk identifikatu eta izendatutakoak dira?

Lan honen ernamuina izan zen UEUko Genero eta Bertsolaritza ikastarorako eman nuen hitzaldia. Autoritatea hartu nuen gaitzat hitzaldi hartan, nola eraikitzen eta deseraikitzen den autoritatea bertso munduan, baina testutik kanpo. Ikusten nuelako emakume bertsolari askoren zailtasunak ez zetozeela testu egokia teknika egokiarekin sortzetik, posizioa aurkitzeko zailtasunetatik baizik. Badirudi bertsolariak mikrofono aurrean ahoa irekitzen duenean hasten dela autoritate-ariketa, epaia, neurketak, balorazioa, erabat dela bertsogintzari lotua. Baina nik uste dut askoz lehenagotik hasten dela, eta autoritatearen eraikuntza, edo norberak bere burua bertsolaritzat jotzeko edo ez jotzeko dituen motiboak, lotuago daudela gainerako guztiarekin testu egokia sortzearekin baino.

Lehen elkarriketatuei galdera bakarra eta zabala egin nien: emakume bezala irakurria izateak eragin al ditu bertsotan egiterakoan, mugimendu marjinean? Eta eragin badizu, nola?

Erantzutean, bakoitzak ertz batetik heltzen zion galdera horri eta askotan errepikatzen ziren zenbait bizipen. Entzuten nuen horretan zapalkuntzaren bat identifikatzen banuen, izendatzen saiatzen nintzen. Eta saiatu nintzen ikusten ea beste norbaitek beste leku eta garairen batean teorizatu duen horren inguruan. Teoria horiek bertso mundura ekartzea izan da ahalegina. Teoria feminista eta bertsolarien bizipenak gurtzatzea. Bizipenetan bertan dago teoria, hori azaleratzea izan da nire lana, eta narratiba bat osatzea.

Liburua orain idatziko banu, 23. mekanismo bat gehituko nuke: isiltasuna.

Isiltasuna da liburua argitaratuta jaso duzuna?

Oso deskonpentsatua izan da bestelako

“**Kontradiskurtso kamuflatuak sortzen ari dira. Kezkatuta gaude naturaltasunaren diskurtsoarekin**”



eremuetatik jaso dugun erantzun beroa (kazetariengandik, idazleengandik, bertso mundutik kanpoko irakurleengandik), eta "etxeko" erantzun hotza. Duela gutxi bazkaltzeko geratu gara liburuan parte hartutako hamar emakume, bakoitzak bere inguruan bildu dituen erreakzioak partekatzeko, bakoitza bertso eskola eta inguru batekoak garenez. Eta apenas geneukan bertso munduko gizonen erreakzioez ezer esatekorik, bakoitzari bere bertso mundu hurbileko gizonek ez diotelako ezer esan. Emakumeen aldetik, berriz, erantzun zabala eta positiboa jaso dugu. Liburua martxoaren 6an aurkeztu genuen, asteartearen larunbat horretan Ahalduntze Bertso Eskola geneukan, eta hiru egun horietan Ahalduntze Bertso Eskolako guztiek irakurrita zeukaten.

Duela 10 urte, bertso munduan gai hauek esplizituki pentsatzen, hitz egiten eta kantatzen hasi ginenean, bagenuen ilusio bat: agian gauza batzuk sozializatu gabe zeuden oraindik, azaldu egin beharko genituen, guk ere ez genituen behar bezain ondo ulertu agian, eta jende asko egongo zen "zapalkuntza" edo



“desberdinkeria” zertan zetzan ulertzen ez zuena. 10 urteko bidearen ostean – hamaika hitzaldi, formazio, artikulu, bilera, bertso... eta liburu hau eta gero-, inpresioa dut kontua ez dela ulertu ezina, botere borroka baizik. Teoria esprikatu dugu, baita teoria hori egunerokoan nola bizi dugun ere. Nola sentitzen diren adierazi dute emakume bertsolariek, eta zenbakiak ere argitaratu ziren iazko ikerketa soziologikoan. Horren ondoren isiltasuna gailentzen baldin bada, isiltasun hori erresistentzia moduan ulertu behar da.

Hala ere, badaude salbuespenak, eta nabarmentzekoa da: badaude gizon batzuk Anaidiatik atera direnak eta feminismoan posizionatu direnak, eta prezio bat izan du haientzako ere. Bi aldeetan egotea ezinezkoa dela ikusarazi digu egoerak, Anaidia emakumeak azpiratzean oinarritzen baita. Eta gizon bat emakumeak ahalduentzearen alde posizionatzen bada, Anaidiak bera ere kuestionatuko du. Era berean, Anaidiak ontzat hartzen dituen emakumeak, hain justu, praktika feministetatik, emakumeen lan kolektibotik eta aliantzetatik

urruntzen direnak dira, Anaidia kuestionatzen ez dutenak.

Agian liburu honek isiltasuna sortzea ona da, bakoitzak baduelako zer pentsatu, eta asko, gai hauetan.

Isiltasun mota ezberdinak daude. Gauza bat da begietara begira, aldamenen isilik geratzea, pentsatzeko... atxikimenduzko isiltasuna. Hori sumatzen dugu batzuegan eta estimatzen dugu, denok behar ditugu isiltasun aroak. Baina beste isiltasun mota bat da ezer gertatu ez balitz bezala jokatzeko, gure bizipenei eta pentsamenduari garrantzia kentzea, propio ezikusiarrena egitea, eta horretatik ere badago.

Ez da liburu erosoa, biolentzia ahoskatzeko duelako. Baina aldi berean, maitasunetik egindako liburu bat da. Uste dut bertsoarekiko pasio handia dariola.

Horrelako liburu bat indartsu zaudenean idazten da. Aldiz, ahul egon zarela esan didazu elkarrizketa hasierako.

Liburua idatzi eta argitaratzerako bagenekien deserosoa izango zela “etxe



Esaten dugu denok ados gaudela diagnostikoan, baina agerian geratzen ari da ez dela horrela. Denok uste bagenu diferentzia benetan existitzen dela eta biolentzia dela, sentituko bagenu justua dela erdiak emakumeak izatea plazan, ez legoke beldurrik horrantz joateko”



barruan". Ez da "barne kontsumorako" lan bat, horregatik argitaratu dugu editorial literario bateko pentsamendu feministako bilduman, barrua eta kanpoa elkarriketan jartzea zelako helburue-tako bat. Bertso munduan gertatzen zaiguna ez da gure arazo partikularra, oso antzeko mekanismoak daude martxan gainerako arloetan ere. Kazetari edo idazle modura kokatu behar izan dut lan hau egiteko, distantzia pixka bat hartu bertso mundutik, eta egin ahal izan dut, neurri handi batean, ez nagoelako txapelketan, ez naizelako Elkarteko langilea... bestela, gain hartuko lidake presioak. Sara Ahmedek dio, bizirauteko, beharrezko zaigula parte garen instituzioak

erlaldatzea, baina erlaldaketa gauzatu bitartean instituzio horiei biziraun behar diegula, eta hori dela zailena.

Zein intentzio du liburuak, leihoak zabaldu eta korrontea sartzeaz gain?

“Gizon bat emakumeak ahalduentzearen alde posizionatzen bada, Anaidiak bera ere kuestionatuko du”

Tresna izatea edozein esparrutan ari diren emakumeentzat edo beren gizentasuna errebisatu nahi duten gizonezkoentzat. Horrelakorik bizi duenari kokatzen laguntzen badio, edo ahalduntzeko tresna izan badaiteke, primeran.

Beste intentzio bat izan da bertsolaritzaren definitzio tradizionala osatzea. Askotan oso kategorikoki hitz egiten da, "bertsoa hau da". Bada, esan dezagun emakume hauentzat zer den bertsoa. Hauek ere

urteak daramatzate bertsotan eta badi-ra nor bertsoa zer den definitzeko. Izan ere, beste edozein arte bezala, bertsoa ere hainbat lekutatik aztertu daiteke. Hainbat aspektu agertzen dira liburuan: teknikoak, korporalak, ekonomikoak, harremanei dagozkienak, historikoak, estilistikoak... Nahiko nuke bertsolaritza arte moduan baloratua izatea eta horrek beharrezko du analisia, ikuspuntu eta narratiba desberdinak. Puntuaziora mugatzen bagara, zuzenean kirolera goaz.

Orain arte ez dira aintzat hartu emakumeen lekukotzetan izugarrizko pisua daukaten hainbat aspektu. Adibidez, zer pisu duen gorputzak bertsotan egitekoan, ez dela lehia dialektiko soilak, ez garesti buru hitzunik, bertsotan gorputzetik egiten dugula, beste gorputz batzuen ondoan... Eta historikoki eta sozialki gorputz horiek eta gorputz horien arteko harremanak hierarkizatzeke eta interpretatzeko modu batzuk daudela indarrean, eta horrek guztiak zuzenean eragiten diola bertsolariari eta bertsoari.

Liburu honen beste intentzio bat bertsolaritza desidealizatzea da. Maitasunak eta zaintzak ezinbestekoa dute desidealizazioa. Bertsolaritzaren irudi idealak jende asko, ahots asko menosten ditu. Bertsozale feminista askok mina sentitu du liburu irakurritan, borroka sortu zaie beren baitako ideologia feministaren eta bertso munduaren idealizazioaren artean. Erosoago delako idealizatzea hain maite dugun eremu hori. Pentsatu nahi dugu gure bikotea ideala dela, gure familia ideala dela, gure koadrila ideala dela eta bertso mundua ideala dela. Baina denok dakigu ez dela hala, leku guztietan daude botere harremanak eta arnasberritzeko modu bakarrik horiek agerian jartzea da, lantzea eta aurrera egitea. Gure gu hurbilenari buruz ari da liburu hau: zer gertatzen zaigu gure gizon maittekin? Zer gertatzen zaigu hainbeste maite dugun familia honetan? Entzun dugu "baina non uzten du honek bertsolaritza?"; eta kontua ez da liburuak non uzten duen, kontua da non dagoen, zer ikusi nahi dugun. Ez genioke beldurrik eduki behar desidealizazioari, ez gara inor baino hobeak, baina honetaz hitz egiteak berak hobetzen gaitu, hau lantzeak hobetuko gaitu, ez ezkutatzek.

Mailaren gaia ere auzitan jartzen du liburu honek.

"Merezi" eta "demostratu" hitzak behin eta berriz agertzen dira. Hori ere puntuazio sistematik eta txapelketatik dator

hein handi batean. Gainerako arteak ere oso lehiakorrek dira eta ez daude honetatik salbu. Baina beste arteetan badaude balidazio sistema diferenteak eta talde diferenteak autore edo korrante askotarikoak balioztatzen dituztenak. Egia da bertso munduan ere sortu direla zale berriak, esaterako bertsolaritzara feminismitik hurbildu direnak eta kanon hegemonikoaz aparteko erreferenteak dauzkatenak, baina gutxiengoa dira. Bertsolaritzan apenas dago analisirik. Bertso munduan denok dakigu nor pasa den hurrengo fasera Gipuzkoako Txapelketan eta nor ez... Baina ia ez dugu artearen analisirik egiten, eta horrek eramaten gaitu "maila"-z hitz egitera, oso erreminta gutxiarekin, ez gaude jantzita bertsogintza analizatzeko. Bestalde, nabarmendu nahi genuen bikaintasuna ezin dela izan izateko modu bakarra, liburuan agertzen denez muturreko autoexigentziak isiltzera eraman dezakeelako hainbat jende, batez ere, emakumeak.

Zein dira egungo korapilo nagusiak?

Kontradiskurtso kamuflatuak sortzen ari dira. Kezkatuta gaude naturaltasunaren diskurtsoarekin, adibidez. Zeri deitzen diogu naturaltasuna? Eta naturaltasunaren ideologiaren atzean zeren gorazarre egiten da eta nor gelditzen da kanpo? Euskalkirik gabeko bertsolaria, emakumeak, bertsolaritzaren ideia tradizionalarekin bat egiten ez duten gorputz eta ahots asko. Naturaltasunaren diskurtsoa, zer da "tapa-tapa" bertsotan egitea? Zer da "hizketan bezala" bertsotan egitea? Euskara batuan hitz egiten duenarentzat, nola egiten da bertsotan hizketan bezala? Epaila bati irakurri genion kezka zutela bertsolari askok "naturalistik" eta "berezkotik" beharrean "beste nonbaitetik" egiten dutelako gaur egun bertsotan. Kezkagarria iruditu zitzaigun.

Naturaltasunaren diskurtsoarekin lotuta, badira hainbat gorputz oraindik bertsotan errepresentatu ez direnak. Adibidez, apenas dagoen bertsolari marikarik. Nabarmenezkoa da bertsolari bolleren ekarpena -diskurtsoa eta umorea hortik eginez, bollo-saioetan kantatuz...-, baina marikak ez dute ikusgarritasunik. Hor ikusten da zenbateraino eraiki den bertsolariaren irudia "gizontasun euskaldun jatorra"ren antzera. Badirudi zailagoa dela gizontasun eredu hori arrakalatzea, emakumeen eredu zabaltzea baino. Liburu honek deskribatu dezake zer 22 mekanismok egiten gaituzten emakume, kontzeptu gisa. Bai-

na beste ariketa falta da: zer da gizon izatea? Nola eraikitzen da gizona? Emakumea eraikuntza sozial moduan deseraikitzen ari garen bezala, deseraikiko al dugu gizona ere?

Diagnostikoan gehiengo zabalak ados egon gaitezke: plazetako emakumeen kopurua ez doa gora, eta bertsolari eta bertsozaleei galdetuz gero, gehiengo zabalak erantzun gabe etorkizunean bertsolaritza parekidea nahi dugula. Baina zailtasunak sortzen dira erabaki zehatzak hartzerakoan. Garrantzitsua da erabakiak hartzea helburutzat berdintasuna izanda, eta ez feminismoak sortzen duen beldurraren erreakzio moduan. Adibidez, "kuota" hitza entzun eta beldurrak nagusitzen dira. Bitxia da Bertsozale Elkarteko Genero Batzordea dela kuota existituen batzorde bakarra. Hau da, Genero Batzordean erdiek gizonak izan behar dute eta beste erabakiguneetan, plazetan ez dute erdiak emakumeak izan behar?

Esaten dugu denok ados gaudela diagnostikoan, baina agerian geratzen ari da ez dela horrela. Denok uste bagenu diferentzia benetan existitzen dela eta biolentzia dela, sentituko bagenu justua dela erdiak emakumeak izatea plazan, ez legoke beldurrik horrantz joateko. Baina oraindik pisu gehiago du esateak "ez, 'onek' egon behar dute".

Baina onak, noren eta zeren arabera? Medikuek euskaldunarena gertatzen zaigu: "Zer nahi duzue, mediku euskalduna ala mediku ona?", ezaugarri batek bestea ukatuko balu bezala. Ikerketa soziologikoak bertsozaleen gustuak ikertu ditu eta azaldu du gizon bertsozaleek gizonak entzun nahi dituztela, 10 bertsolari gustukoenen artean emakume bakarra sartzen dute. Horren atzean zer dago: kalitatea ala gustua? Nik ez dut dudarik emakume bertsolari on asko dagoela, eta gero eta gehiago izango direla, baina autorizatu egin behar dira eta hori barrutik hasten da.

Badago beste diskurtso bat nahiko hedatua, esaten duena "gauzak berez gertatuko dira". Baina ikusten dugu pareta sendoa dela. Urratsak eman behar ditugu. Urratsak emateko, lehentasunezkoa da nire ustez Bertsozale Elkartearen barruan Batzorde Feminista bat sortzea eta berdintasun plan bat blindatzea, eta

batzorde hori autorizatzea, ez daitezela hango gogoetak ke hutsean geratu. Bestalde, uste dut plazan eragiten segi behar dugula, inoren zain egon gabe, sortzen, proposatzen, kantatzen, gozatzen.

Badago beste diskurtso bat, dioena "gehiagi tiratzen ari zarete eta eten egin daiteke kohesioa". Baina Miren Artetxek esan zuen bezala, sokatira batean soka tinkatuta badago, bi alde ari dira indarka, eta zapia mugitzen ez bada, esan nahi du alde batean haina indar dagoela bestean. Aurrera egin nahi badugu eta ez badugu nahi soka eteterik, gatazkari soluzioak ematen hasi beharko dugu.

Beste arrisku bat ikusten dut, feminista "onen" eta "txarren" arteko bereizketak egitea. "Hauekin hitz egin daiteke eta beste hauekin ez", eta hori ez da egia. Emakume bertsolarien arteko artikulazioa ez haustea garrantzitsua da.

Beste erresistentzia mota bat da esatea "diferentzia mota guztiak hartu behar dira kontuan: kuota generoan bai, baina lurralde-tasunean? Eta adinean? Eta klasean?...".

Tersektzionalitatea praktikara eraman eta indarrak biderkatu beharrean, esaten da "beste zapaldu batzuk ere badaude". Eta beraz, denak jarrai dezala lehengoan, denak askatze bidean jarri ordez.

Ezin du borroka batek bestea ukatu, ezin dugu zapaldume-


troa martxan jarri menperakuntzak hierarkizatuz. Adibidez, duela zortzi urte Gipuzkoako txapelketan kantatu behar nuenean ama izan berritan, eskatu nuen azken kanporaketan kantatzea, horren arabera haurrak hilabete edo bi hilabete izango baitzituen. Jaso nuen lehenengo erantzuna izan zen pribilegio bat zela, azken saioan giro hobea egoten delako. Azkenean, onartu zidaten. Bertsokide batzuek esaten zidaten "eta beste batzuk gripea badauka?"; bada hitz egin dezagun bajak nola kudeatu behar diren txapelketan. Amatasun baja bat errespetatzeak ekarriko badu beste baja guztiak errespetatzea, denontzako mesede. Tresnak gure eskuetan dauzkagu, autosufizienteak gara alde horretatik, eta jende asko ari da bertsolaritza berdintza leago baten alde lanean. Eraldaketa lan kolektibotik etorriko dela uste dut. Hori ikasi dut bidean. ●

“
**Bertsolaritzan
apenas dago
analisirik eta horrek
eramaten gaitu
'maila'-z hitz egitera,
oso erreminta
gutxiarekin**”



LIBURUA

Klorofilazko sugarra



URTAROAK ETA ZEINUAK JON GEREDIAGA

PAMIELA, 2019

IGOR ESTANKONA

Atzo izan zela ematen du Jon Gerediagaren *Argia, lurra, zuhaitza, zerua* (Pamiela, 2015) bukatu genuela. Arrasto hain sakona utzi zigun liburu hari jarraiki, baina beste norabide bat hartuz, hara non datorren berriro bilbotarra pobrezia alai batekin, hizkuntzaren ekonomiaren bidez naturaren guritasuna opatuz: "Asun-talde batek/ lur berri bat irabaziko du ametsarentzat eta euriarentzat".


Edertasunaren ekologia ez baita ka-nonon edertasuna. Haraindikoa da. Askatasunarekin du zerikusia, minarekin eta irautearekin, den guztia entzutearekin. Horregatik liburu hau errepikakorra da okilaren kantua bezala, beti bat kirikiño latzaren bidea lez: "Eta irabazten duenean bide bazterra,/

behin eta berriz, asunaren loreak".

Esan dezake norbaitek hara zer errutina. Eta harrigarriena da insistentzia horretan egiten duela aurrera diskurtso poetikoak, eta iraileko zeruen antzera direla poema guztiak beti bat baina beti desberdin: "Ikusiko ditut berriz,/ behin eta berriz berdatuko dira". Belarraren gorazarrea, frutarbotetako loreena, sagarrarena, *Urtaroak eta zeinuak* ez da ari konkistatu beharreko inguru latz batez, ezpada gure espirituaz. Egin ditu idazleak batzuetan konparazioak naturaren eta bere emozioen artean, baina izadia hemen ez da pertsonifikatua, ez da erromantikoek asmatua, ez da eszenatokia, ez da *locus amoenus*. Halaber, ez da inkontzientean konkistarekin lotu dugun

gailur altuko natura zabalaz ari –Gary Snyder, Juanra Madariaga–, Euskal Herriko inguru suntsitu honetan harriaren gainean oharkabeaz hazten den goroldioaz baino, edo pinudien familia historiaz, edo adar urdinen artetik erdi-ikusten den izar gozoaz.

Aurrera eta aurrera doaz poemak eta egoera berrietara jarri dute irauten. Jon Gerediagak badaki itxaroten, sustrai meheak luzatzen ditu irakurlearen zerebroan. Ekin eta ekin ideia berari –iraun, moldatu–, eta hala ere hau ez da liburu monotonoa. Hau da liburu derrigorrezko bat azken urteotako uztan, itxuraz ezer esan barik dena esateko gaitasuna duen idazle bakan horietako batek poesiaren zelaietan bildua. ●



KONTZERTUA

Musika Hamabostaldia: nire hautaketa



ENSEMBLE DIDEROT TALDEAK SENPEREN JOKO DU.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Urtero bezala, badugu musika-zaleok zita garrantzitsu bat Donostian: abuztuan ospatzen den Musika Hamabostaldia. Aurtengo edizioa, 80.a, benetan gustagarria da, agian gehiegi. Honekin ez dut nota negatibo bat eman nahi, kontrakoa baizik. Baina, egia da, aurtengo egitaraua ez da oso ausarta. Imajinatzen dut askoz titulu ausartagoak aukeratuko lituzketela antolatzaileek, baina aurrekontua mugatuta dagoenean, arrakasta ziurtatu behar da nolabait, eta horretarako egitarau kontserbadorea behar da, nahitaez.

Aurreko urteetan egin dudan bezala, proposamen guztien artean gomendio batzuk egingo dizkizuet, nire ustez interesgarrienak diren saioekin. Halere, aipatuko ez ditudan errezitaldien artean benetako harribitxiak egongo dira, noski, baina aukeratu behar da. Ziklo

bakoitzetik saio bat porposatuko dizuet. Ziur nago bertaratzeko bazarete ez zaretela damutuko.

Hasteko, Kursaal Auditorioko ziklotik kontzertu pare bat: Pucciniren *Madame Butterfly* opera, batetik. Nahiz eta mila aldiz entzun obra zoragarri honekin sekulan ez gara aspertuko. Lan ederra, melodiosua, erromantikoa, hunkigarria... Denetatik dauka publikoa liluratzen. Horrez gain, aldi honetan gure Ainhoa Arteta dugu protagonista, eta horrek puntu gehiago ematen dizkio saioari.

Bestalde, London Philharmonic Orkestrak, Juanjo Menaren batuta-pean, eskainiko dituen bi kontzertuak biziki gomendatzen ditut. Beethovenen piano eta orkestrarako kontzertuen integrala joko dute, Javier Perianes bakar-lariarekin batera, eta ziur nago mundiala izango dela.

DONOSTIAKO MUSIKA HAMABOSTALDIA HAINBAT KONTZERTU

Victoria Eugenia Antzokiko zikloan, dudarik gabe, Khatia Buniatishvili pianista georgiarrak emango duen errezitaldia ezin da galdu. Oso artista berezia da, birtuoso, sentsiblea, teknikoki perfektua... Schubert, Liszt eta Stravinskyren obrak ekarriko ditu eta zeresana emango du, zalantzarik gabe.

Hamabostaldi ibiltaria ziklotik, Ensemble Diderot taldearen kontzertua oso interesgarria iruditzen zait. Senperen egingo den saio honetan Telemann, Leclair, Aubert, Corrette eta Boismortieren obrak entzuteko aukera izango duzue.

Amaitzeko, San Telmoko ostegun musikaletan Ona Cardona (klarinetea) eta Josep Colom (pianoa) izango ditugu gure artean. Egitarau guztiz erromantikoa disfrutatuko dugu musikari paregabe hauen eskutik. Ez galdu! ●



Uger Larrabasterrako txosnagunean, bezperan Explosivahrekin emandako kontzertuan.

Amaierak dantzan harrapatu gintuen

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA 📷 HODEI TORRES

Biharamunarekin, baina bart luza-tu izanaren damu itxurarik gabe. Halaxe aurkitu genituen Uger eta Explosivah taldeko kideak inguruetakoko punk rock zaleen elkargune aski ezaguna den Barakaldoko El Tubo tabernaren ateetan. Giroan antzeman zitekeenez, bezperan emandako zuzenekoaren bidez publikoarekin bakarrik ez, elkarren artean ere konektatu zuten bi taldeek. Ajeak aje, Leonetik espresuki bi zuzenekoak ematera etorritako Explosivah hirukotea eta Bilbo inguruetakoko Uger boskotea aurreko gauekoa errepikatze gogotsu zirela zirudien. Jarraian entzun eta bizitakoak hala zelan berretsi zigun.

Sarrera guztiak agortuta, aretoa gainezka aurkitu zuen atletik sartzen azkenak. Aurreko eguneko ordena alderantzizkatuz, etxekoei egokitu zitzaizen beren punk rock eta stoner ukitudun rock alternatiboaz taberna-zulo ilunean barrena publikoarenganaino bidea zabaltzea, eta bisitariei ibilbidea ixtea. Tarteka buru-kolpeka, tarteka begiak itxita eta dantza ugari tarteko, taberna-zuloan pilatu

ginenok gustura egin genuen berauen atzetik bidea, izerdi patsetan eta barran zeozer eskatzeko gogoz itzultzeraino.

Publikoa poltsikoratzeko aukerak nabarmen handitu zizkien sorpresa faktorearekin jokatu zuten Ugerreko kideek: *Fedea* abesti berriarekin mututu gintuzten, kolpean bereganatuz parean ginenon arreata. Zurrumurruek diotenez, azken lerroetaraino heldu omen zen hirugarren disko baten usaina. Segidan, nostalgikoenak ase zituen lehen diskoko *Urtua* eta *Ugerra* abestiei eman zieten bide. Abesti homonimoaren erritmoekin abiadura hartuta eta frenatzeko intensiorik barik, bigarren diskora salto egin eta *Hilos* joaz jarraitu zuten, baina entzuleon atzera-aurrerentzat taberna estu bilakatzen ari zela ohartu izan balira bezala, geure onera ekarri gintuzten *Txanpon bat Sabin zahararentzat* melodikoagoaz.

Behin entzuleok mantsotuta, bigarren abesti berri batekin gozarazi ziguten. Boskotearen eskutik abiatutako bidaiari, *Cosmic* bidean egindako aurkikuntza ederra izan zen, eta aurkikuntzaren lila-

UGER + EXPLOSIVAH

NOIZ: Uztailak 13.

NON: El Tubo, Barakaldo.

rak eta ostein etorri zen psikodelia zantzu-dun *Denbora*-k ezin hobeto ezkondu zuten. Abestiaren amaierarako berriro hartua genuen erritmoa, eta *Ez dut nahi* indartsuaren lehen doinuek oraingoan taldekideen partetik frenatzeko asmorik ez zegoela adierazi ziguten: amaiera gertu zegoela antzeman zitekeen. *Ezin ahaztu*-ri eman zioten bide segidan, eta *heldu da jada, heldu da jada* zioten estribilloak profetia bailiran, amaiera gertu antzeman eta dantzan harrapa gintzala erabaki genuen. Akabera onartu duenaren entregarekin jaso genuen boskoteak azkeneko gordea zuen harribitxia: *Samarra*, Sonic Youth taldearen *Mote*-ren bertsioa.

Ostein, El Tuboko barrunbeetan barrerako bidaiaren gidaritza hartu zuen Explosivah-k, guztiok dantzan jarri gintuzten punk rock doinuek eztanda betean. Taldearen iruditza granada itxurako bihotza –edo bihotz itxurako granada, bakoitzaren arabera– darabilenarengandik ez genuen gutxiago espero. Amaierak dantzan harrapa gintzan prest geunden. ●



Bertso-zopa

Osatu Jexux Mari Irazu Muñoak 2015ean Aramaion botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan bilatu. Doinua: *Hil da Canovas fuera Canovas I*. Gaia: Gaur institutu garaiko ikaskideekin afaria izan duzu. Etxera bueltan zoaz, bakarrik eta irrifartsu.

Institutoko afaria eta
_____gera ia denak
Karlos ta Mikel, Maite ta Miren
hoitako batzun _____.
Batzuek parre eiten zidaten
haiek nigana kemenak!
Orain _____neuk egiten diet
libratu hola _____:
ni baino jornal kaxkarragoa
_____enpolloienak.

Ta denetikan tokatu omen
ze _____andana!
Bata mediku sartu omen zan
denak sendatzeko _____
bestea berriz ETBn dabil
kazetaritzan afana
ta hurrengoa ertzaina sartu
kuadrillan badauka _____.
Aramaiotik etxerakoan
_____ipini zidana.

Hogei bat urte egin ditugu
guztiok ere atzera
mundua asko _____da ta
asko aldatu da _____.
Goizeko seiak jo digute ta
kotxean noa _____
neure baitako kontu ta marmar
_____atera.
Garai batean gela bat ginen
ta orain _____bat gera.



L	B	D	S	L	H	J	C	U	C	T	R	J	F	O
O	C	E	Z	J	A	U	E	Z	C	J	D	V	C	N
N	D	M	A	D	T	M	U	P	G	V	H	E	E	D
D	R	N	H	M	F	B	A	T	C	C	T	L	S	J
O	K	P	Z	H	O	R	U	F	A	X	P	R	J	A
R	A	J	U	D	R	V	P	T	E	D	V	V	N	V
I	N	Z	A	E	R	U	F	S	L	A	M	E		
O	E	C	Z	R	H	J	A	T	O	F	L	A	B	E
A	Z	C	L	S	E	G	D	I	G	P	C	G	T	N
K	I	U	R	L	I	L	Z	E	D	H	P	G	C	E
F	A	R	N	R	R	I	L	M	O	U	F	D	H	G
M	U	L	T	A	F	A	U	M	C	S	S	V	M	U
N	U	M	T	O	K	E	Z	F	R	B	I	L	D	U
T	D	N	U	O	B	A	R	R	E	N	A	K	T	M
S	H	I	D	F	L	B	T	A	B	Z	J	P	F	B
I	R	J	I	U	R	P	A	R	E	B	R	O	N	O

Sudoku

ERRAZA

9		3	1	6		2		
	5							3
		2			3	6	1	9
5		4	2	3		7		1
			9		7			
7		8		1	6	4		2
8	6	9	3			5		
1							3	
		5		7	9	1		8

ZAILA

		3			8		1	
						8		5
		8		4	1		2	
	3	2						7
7				3				9
6						3	8	
	9		7	6		5		
5		4						
	2		1			9		

Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									



Ardi hitz-elkarketan. **7.**...begira, bata besteari begira. **8.** Usaimena. Ihiak.

GOITIK BEHERA:

EZKER-ESKUIN:

1. Zapata. Konforme. **2.** Bizkaiko herria. **3.**tak, erlojuaren hotsa. Behiaren kume. **4.** Oramahaia. Platinoaren sinboloa. **5.** Letra izena. **Lapurdiko udalerria (argazkian).** **6.** Nafarroako mendizerra, Etxauriko haitzetatik Lizarragako mendateraino.

1. Eragotzi. **2.** Sei zati berdinetako bat. **3.** Gorotza. Dagoen. **4.** Indioaren sinboloa. Sekzioa, departamendua. **5.** Ipurtzuloak. **6.** Euskal musika taldea. Zerez atzizkia. **7.** Toka, du. Zuntz. **8.** Atsedeen-garaia, lanuztea. **9.** Sutatik, sutik.

EBAZPENAK

Institutoko afaria eta/bildu gera ia denak/Karlos ta Mikel, Maite ta Miren/hoitako batzun izenak/Batzuek parre eiten zidaten/halek nigana kemenak/Orain parre neuk egiten diet/libratu hola barrenak/ni baino jornal kaxkarragoa/gelako enpolloienak//Ta denetikan tokatu omen/ze ofizio andana/Bata mediku sartu omen zan/denak sendatzeko plana/bestea berriz ETBn dabil/kazetaritzan afana/ta hurrengoa ertzaina sartu/kuadrillan badauka fama/Aramaiotik etxerakoan/multa ipini zidana/Hogei bat urte egin ditugu/guztiok ere atzera/mundua asko aldatu da ta/asko aldatu da norbera/Goizeko seiak jo digute ta/kotxean noa etxera/neure baitako kontu ta marmar/ondorioak atera/Garai batean gela bat ginen/ta orain mundu bat gera.

8	9	6	4	5	1	7	2	3
1	2	7	1	6	8	3	4	5
3	4	5	2	7	1	6	8	9
6	1	9	4	7	5	3	8	2
7	8	5	3	6	1	9	4	7
4	3	9	6	1	8	7	2	5
5	8	7	2	3	6	4	1	9
1	4	6	9	8	5	3	7	2
2	7	3	5	9	8	4	1	6

ZAILA

3	4	5	6	7	8	9	1	2
1	2	7	4	8	5	9	6	3
8	6	9	3	2	1	5	7	4
7	3	8	5	1	6	4	9	2
2	1	7	6	4	9	3	8	5
5	9	4	2	3	7	8	1	6
4	7	2	8	5	3	6	1	9
6	5	1	7	9	2	8	4	3
9	8	3	1	6	4	2	5	7

ERRAZA

L	B	D	S	L	H	J	C	U	C	T	R	J	F	O
O	C	E	Z	J	A	U	E	Z	C	J	D	V	C	N
N	D	M	A	D	T	M	U	P	G	V	H	E	E	D
D	R	N	H	M	F	B	A	T	C	C	T	L	S	J
O	K	P	Z	H	O	R	U	F	A	X	P	R	J	A
R	A	J	U	D	R	V	P	T	E	D	V	V	N	V
I	N	Z	A	E	R	U	F	S	L	A	M	E		
O	E	C	Z	R	H	J	A	T	O	F	L	A	B	E
A	Z	C	L	S	E	G	D	I	G	P	C	G	T	N
K	I	U	R	L	I	L	Z	E	D	H	P	G	C	E
F	A	R	N	R	R	I	L	M	O	U	F	D	H	G
M	U	L	T	A	F	A	U	M	C	S	S	V	M	U
N	U	M	T	O	K	E	Z	F	R	B	I	L	D	U
T	D	N	U	O	B	A	R	R	E	N	A	K	T	M
S	H	I	D	F	L	B	T	A	B	Z	J	P	F	B
I	R	J	I	U	R	P	A	R	E	B	R	O	N	O

OPORRA, 9. SUTATIK.
6. AREAN, AZ, 7. DIK, HARI, 8.
DEN, 4. NI, SAILA, 5. UZKIAK,
OTOPATU, 2. SEIREN, 3. KAKA,
GOITIK BEHERA: 1.
EUKARRI, 6. USNA, ZIAK.
AINHOA, 4. ONASKA, PT, 5. PE,
ZEKOR, 2. ZEANUR, 3. TIK,
ADOS, 2. ZEANUR, 1. OSKI,
ESKER-ESKUIN: 1. OSKI,

Roberto Urrutia

ARTZAIN LANDAN,
GAZTAGILE HIRIAN



FAMILIAREN SEGIDA, JARRERA POLITIKO GISA

"Aitona artzain izan zen, Ameriketara lehenbizi eta Garesen gero. Aita Txantrea-ko azken artzaina izan zen, eta Iruñeko azkenetako bat. Nik ardi artean ikasi nuen oinez. 17 urterekin desagertu ziren ardiak gure etxetik, eta berehala hasi zitzaidan niri ogibideari eusteko asmoa. Gizarte hezkuntza ikasi nuen, eta adin txikikoen-tzako zentro batean ari nintzen lanean artalde bat hartzeko aukera sortu zitzaidanean, orain bost urte. Ordutik Artaitzen ari naiz ardiekin, eta Txantrean ekoizten dut gazta. Garai bateko ustiapen txiki, integratu eta errespetutsuak mantentzeko modu bat da. Niretzat, ogibideaz gain, jarrera politiko bat ere bada".

"Mundu azkar honetan, ogibide duin eta beharrezkoa da artzainarena"

Hiriko semea izanagatik, familiako ogibideari segida eman eta Txantreako Gaztategia egitasmoa jarri zuen martxan orain urte gutxi Roberto Urrutiak, Xabier anaiaren laguntzarekin. Hiria eta landa elkarrengana hurbiltzea du xedeetako bat, eta praktikan ari da horretan: 300 buruko artalde du Artaitzen, eta Iruñeko Txantrea auzoan egiten du gazta. Ardiak inguruan dituela, eta Artzain eta Beltza txakurrei tarteka garrasi egiten diela, erantzun ditu elkarrizketa honetako galderak.



ANDER PÉREZ



JOSU SANTESTEBAN

Ez zara familian artzain bakarra.

Aitonak Ameriketara emigratu zuen, eta han ibili zen artzain hamar urtez, Nevada eta Kalifornia artean, mendian hilabeteak emanez. Egindako diruarekin itzuli eta artalde bat hartu zuen Garesen (izatez, Eugikoa zen). Ardiak eta ahuntzak hartu zituen. "Los Cabre-ros", hala esaten zioten Garesen nire aitaren familiari. Aitak, Parisera migratu eta han hemezortzi urte eman eta gero -amak hamar-, itzultzea erabaki, eta artalde bat hartu zuen, lehenbizi Magdalenan [Iruñeko auzoa], eta gero Ezkaba mendiko bolborategian, Orbina gainean. Han ibili zen hogeitik gora urte, artzain, jubilatatu arte.

Iruñeko azken artzainetako bat izan omen zen.

Txantreako azkena bai behintzat, eta hiriko azkenetakoa ere bai.

Hiriko familia izanda, nola bizi zenuten artzain mundua?

Nik ardi artean ikasi nuen oinez, ardi artera eramaten ninduten aulkitxoarekin. Nire anaiei eta amari -eta aitari, noski-, lan egitea egokitu zitzairen,

baina nik, txikiena izanda, beste modu batera bizi izan nuen, beti mendian, ardiekin, artzain munduan. Guretzako naturala zen; artzainaren semeak ginen. Eta horrek, nahi eta nahi ez, definitzen gintuen.

Nola erabaki zenuen familiaren sokari eustea?

17 urte nituela desagertu ziren ardiak gure etxetik, eta nire anaiek ez zuten ogibidearekin jarraitu nahi izan. Niri 20 urterekin hasi zitzaidan ideia buruan bueltaka. Garai horretan Iruñetik kanpora joan nintzen bizitzera, Artzibarrera, herri bat berreskuratzera. Artalde propioa izateko ideiarekin hasi nintzen, baina zaila zen, ez baitzegoen har nezakeen ustiapenik. Zorionez une hartan ez nintzen horrekin jarri, eta horri esker bizi ahal izan ditut beste gauza batzuk, bidaia-tu, eta abar. Hain gatzetatik lotu izan banintz orain erreta nengo.

Gerora berrartu zenuen ideia, dena dela.

Orain dela bost urte hasi nintzen, 37 urterekin. Artaitz herrian (Untzitibar)



"BURUJABETZA MURRIZTEN DIGUTEN OLIGOPOLIO HANDIEN ESKU GAUDE. LANDAN BIZITZEA EZ DA BAKARRIK NORBERAK BERE ELIKAGAIK SORTU AHAL IZATEA; HERRIETAKO LURRAREN ANTOLAMENDUA ETA AUTO-ANTOLAKUNTZA ERE GALTZEN ARI DA".

lur komunal bat errentan hartzeko aukera sortu zen, ukuilu txukun eta larre eder batekin. Aukera gisa ikusi nuen. Ni, ikasketaz, gizarte hezitzailea naiz, eta adin txikikoentzako zentro batean ari nintzen lanean. Estres handia sortzen zidan lan horrek. Eta alde egitea erabaki nuen.

Lan gogortzat du jende askok artzaintza.

Bada ogibide honi uko egiten dion jende asko, lan esklabutzat dutelako. Niretzat kontrakoa da: bizi dugun mundu azkar honetan, ogibide duin eta beharrezkoa. Animaliekin eta naturarekin harreman zuzena izateko aukera ematen dit, eta lasaitasuna eta gozamena ere bai. Nire bizi erritmoa ez da hirikoa; badira lan karga handiko uneak (ardiak erditzerakoan, jizteko garaian, gazta egiteko sasoiak...) baina udazkenak eta neguak oso lasaiak dira: ardiak mendian daude, eta lana, egiatan, buelta batzuk eman eta dena kontrolpean dagoela ziurtatzea da batez ere.

Gazta Txantrean egiten duzue, hori da berezitasuna, hiri eremuko produktua dela.

Esnea saltzen hasi nintzen, baina oso

estu bizi nintzen. Gazta ekoizpenak egiten ditu errentagarri esnerako abeltzaintza ustiapenak. Behar horren aurrean, hurrengo urratsa ematea erabaki nuen. Proiektu honek hiru fase ditu: lehena, artaldea egin eta sendotzea. Bigarrena, gaztandegia sortzea. Eta hirugarrena, etorriko dena, hezkuntza arlokoa, jendeari artzain mundua erakusteko. Txantrean familiak bazuen etxabea, eta han kokatu nuen gaztandegia. Baditu bere trabak, esnea garraiatzen ibili behar izaten naizelako, baina aldi berean, aukera gisara ere ikusi genuen, gure esne propioarekin egiten dugun produktua hirira hurbiltzeko modua zelako.

Zer harrera izan du?

Jendeari gustatu zaio. Iaz hasi ginen, oso gutxi ekoizita, 300 bat kilo. Aurtun 2.000 kilo egitea da asmoa, eta jendea zain dugu. Ekainaren erdialdean hasi berri gara, eta bi hilabetez ariko gara jezten. Abuztu erdialderako izango ditugu lehenbiziko gaztak.

Landa eremuko ondarea hirira hurbiltzea da zure asmoetako bat. Hantzen ote doa arrakala?

ditzen ote doa arrakala?

Hiria eta landa eremuaren arteko haustura geroz eta handiagoa da, urruntzen ari gara garai bateko ekoizpen eta kontsumo modu naturaletatik. Landa izan da orain belaunaldi gutxira arte gizarte modura bizitzen utzi diguna; denok dugu jatorria landa eremuan, nekazari eta abeltzainetatik gatoz. Nirea planteamendu politikoa da: beharrezkoa da ekoizpen bide hauek mantentzea, ingurunean integratuta eta errespetutsuak direnak, eta talka ekologiko txikia dakartenak. Badira gazta industrial oso onak, baina atzean sistema intentsiboak ditzutenak, eta horiek ari dira gure planetaren bizian eragiten. Ustiapen txikiak, errespetutsuagoak izateaz gain, galtzen ari den jakintza kulturala mantentzea ere badakarte. Landa husten ari da, eta enpresa handiak modu bortitzean ari dira elikagaiak ekoizten. Burujabetza murrizten diguten oligopolio handien esku gaude. Landan bizitzea ez da bakarrik norberak bere elikagaiak sortu ahal izatea; herrietako lurraren antolamendua eta auto-antolakuntza ere galtzen ari da. Horregatik, landan bizitzeak, badu niretzat osagai politikoa ere. ●



FaceApp-en filtroak erabilia ere, Xabier Usabiagak betiko itxura bera mantentzen du



ETBko kazetariak pasa den asteburuan deskargatu zuen FaceApp aplikazioa, baina selfie bat eginda zahartzeko filtroa pasa zionean, argazkia ez zen batere aldatu. Gaztetzekoa pasa zion ondoren, eta argazkia berdin geratu zen. "Tramankulu hau ez dut tajuz gobernatzen ikasi edo bestela segapotoa txakalaldia izaten hasi da", idatzi zuen Twitterren,

FaceApp-ek itzuli zizkion argazkiekin batera argitaratutako mezuan. Aplikazioaren arduradunei galdetuta, erantzun dute ez dagoela akatsik. "Filtroek ez dute funtzionatzen gaztetasun eternala aurkitu duen jendearekin. Jordi Hurtado ere kezatu zitzaigun, baina aizue, mirariak Lourdesen", esplikatu diote Beranduegiri. ●

SAREAN ARRANTZATUA

Osakidetza-
merchandising-a



Tolosa asko handitu da
azken urteetan



UDAN "HERRIA ZAINTZEN" GERATU DEN
BIKOTE EUSKALDUN BAT.

Oporretan "herria zaintzen" geratzen zarela esateak duela 32 urtetik ez daukala grazia-rik konfirmatu dute EHUKo ikerlariek

EHUren Udako Ikastaroetan jakinarazi dutenez, aspaldi galdu zuen grazia oporretan inora ez zindoazela esateko "herria zaintzen" geratuko zarela esateak. Jon Mirena Lopez soziologoak emandako datuen arabera, 32 urte pasa dira norbaitek espresio hori entzun ondoren zintzoki barre egin zuenetik. Gerotik, esamolde horrek probokatu dituen irribarreak behartuak izan direla


adierazi du, 400 lagundik gorako lagin bati egindako galdeketetan oinarrituta. "Broma txarra izateaz gain, zapalkuntza egoera bat ezkutatze modu bat izan da", baieztatu du EHUKo irakasleak: "Langile klaseak eskubidea dauka udan gutxienez Landetara edo Laredora ateratzeko. 'Herria zaintzen' esamoldea indarkeria estruktural hori ezkutatze modu bat izan da", adierazi du. ●

Aktualitatearen

gakoak

2019ko abuztua

Egin zaitez
ARGIAkoa
uztailaren 24a
baino lehen
eta etxera
bidaliko dizugu



G7
Biarritzen

Udan patxadaz gozatzeko

ARGIA Jendeak etxean jasoko du, eskatu beharrik gabe.
Gainerakoek: Erosi ARGIAren Azokan

AZOKA.ARGIA.EUS • AZOKA@ARGIA.EUS • 943 37 15 45



DES-KOLONIZA GAITEZEN!

URRIAK 11-12, ARGIAREN MENDEURREN FESTA

 ARGIA

URRIAK 11, OSTIRALA

21:00 **NAPARDEATH**
FILMA IKUSGAI
TRINITATE PLAZA

URRIAK 12, LARUNBATA

11:00 **ZOMORRO**
BILA URGULLEN

Iñaki Sanz biologoa
eta Eñaut Airtzagüena
marrazkilariak gidatuta.

12:00 **IBILBIDE**
HISTORIKOA
KALEZ KALE

Txistulariek gidatuta, Urko Apaolaza
historialariaren azalpenekin eta
Beñat Gaztelumendi eta
Miren Artetxe bertsolariek zirkatuta.

13:00 **SOKA-DANTZA**
KONSTITUZIO PLAZA

14:00 **BAZKARI**
HERRIKOIA

ARGIAk barrikotea, mahaiak eta
aulkiak, gainerakoa bakoitzak berea.

TRINITATE PLAZA

16:00 **POBRESIAK +**
UMEENTZAKO
ESKULANAK...

TRINITATE PLAZA

17:00
"DESKOLONIZA
GAITEZEN"

Helduentzako jolasak
(NAN jaurtiketa...)
eta munduko dantzak.

TRINITATE PLAZA

17:00 **PAILAZOAK**

Txirri-Mirri-Txiribiton
Junior-en emanaldia.

SAN TELMO PLAZA

20:30 **KONTZERTUAK**
TRINITATE PLAZA

AMAREN
ALABAK
MURSEGO
BALERDI
BALERDI
NIÑA
COYOTE
ETA CHICO
TORNADO